



PROPOSAMENA: TOLOSAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA ALDATZEA

Ordenantza orokorra ondorengo era honetan uztea proposatzen da (horiz eta urdinez markatu dira egitea proposatutako aldaketak).

TOLOSAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA	ORDENANZA GENERAL DE SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA
ZIOEN AZALPENA	EXPOSICIÓN DE MOTIVOS
<u>I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK</u>	<u>CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES</u>
<ul style="list-style-type: none">1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremu orokorra.2. artikulua. Udal dirulaguntza zein den.3. artikulua. Aplikazio eremu subjektibo eta materialak.4. artikulua. Araubide juridikoa.5. artikulua. Printzipio orokorrak.6. artikulua. dirulaguntzen Plan Estrategikoak.7. artikulua. Dirulaguntzak emateko baldintzak.8. artikulua. Dirulaguntzak emateko organo eskudunak.9. artikulua. Onuradunak.10. artikulua. Onuradun izateko baldintzak11. artikulua. Egiaztatze modua12. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunen eskubideak eta betebeharrak.13. artikulua. Entitate laguntzaileak.14. artikulua. Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.15. artikulua. Dirulaguntzak emateko ebazpenaren aldaketa.16. artikulua. Udalaren dirulaguntza jardueraren publikotasuna.	<ul style="list-style-type: none">Artículo 1. Objeto y ámbito general de aplicación.Artículo 2. Concepto de subvención municipal.Artículo 3. Ámbitos de aplicación subjetivo y material.Artículo 4. Régimen jurídico.Artículo 5. Principios generales.Artículo 6. Planes Estratégicos de Subvenciones.Artículo 7. Requisitos para el otorgamiento de las subvenciones.Artículo 8. Órganos competentes para la concesión de subvenciones.Artículo 9. Beneficiarios/as.Artículo 10. Requisitos para obtener la condición de beneficiaria.Artículo 11. Forma de acreditaciónArtículo 12. Derechos y obligaciones de las personas o entidades beneficiarias.Artículo 13. Entidades colaboradorasArtículo 14. Financiación de las actividades subvencionadasArtículo 15. Modificación de la resolución de concesiónArtículo 16. Publicidad de la actividad subvencional municipal



<ul style="list-style-type: none">• 17. artikulua. Bermeen araubide orokorra.	<ul style="list-style-type: none">• Artículo 17. Régimen general de garantías
<p><u>I. KAPITULUA. DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA</u></p> <ul style="list-style-type: none">• 18. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedurak. <p>1. ATALA. DIRULAGUNTZA NORGEHIAGOKAKO ERREGIMENEAN EMATEA</p> <ul style="list-style-type: none">• 19. artikulua. Prozeduraren hasiera• 20. artikulua. Prozeduraren instrukzioa• 21. artikulua. Prozeduraren ebazpena <p>2. ATALA. DIRULAGUNTZA ZUZENEAN EMATEKO ERREGIMENA</p> <ul style="list-style-type: none">• 22. artikulua. Dirulaguntza zuzenean ematea <p>LEHEN AZPIATALA. DIRULAGUNTZA IZENDUNAK ZUZENEAN EMATEKO ERREGIMENA ETA PROZEDURA</p> <ul style="list-style-type: none">• 23. artikulua. Kontzeptua eta motak• 24. artikulua. Emateko prozedura <p>BIGARREN AZPIATALA. GAINERAKO DIRULAGUNTZAK ZUZENEAN EMATEKO ERREGIMENA ETA PROZEDURA</p> <ul style="list-style-type: none">• 25. artikulua. Ematea bera edo zenbatekoa lege mailako arau batek ezarria duten dirulaguntzak.• 26. artikulua. Deialdi publikoa egiteko zailtasuna dela-eta emandako dirulaguntzak.	<p><u>CAPÍTULO II. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Artículo 18. Procedimientos de concesión <p>SECCIÓN 1ª. CONCESIÓN EN RÉGIMEN DE CONCURRENCIA COMPETITIVA</p> <ul style="list-style-type: none">• Artículo 19. Iniciación del procedimiento• Artículo 20. Instrucción del procedimiento• Artículo 21. Resolución del procedimiento <p>SECCIÓN 2ª. RÉGIMEN DE CONCESIÓN DIRECTA</p> <ul style="list-style-type: none">• Artículo 22. Concesión directa <p>SUBSECCIÓN PRIMERA. RÉGIMEN Y PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DIRECTA DE SUBVENCIONES NOMINATIVAS</p> <ul style="list-style-type: none">• Artículo 23. Concepto y clases• Artículo 24. Procedimiento de concesión <p>SUBSECCIÓN SEGUNDA. RÉGIMEN Y PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DIRECTA DEL RESTO DE SUBVENCIONES.</p> <ul style="list-style-type: none">• Artículo 25. Subvenciones cuyo otorgamiento o cuantía venga impuesto por una norma de rango legal.



	<ul style="list-style-type: none">• <i>Artículo 26. Subvenciones concedidas por razones de dificultad de convocatoria pública.</i>
<p><u>III. KAPITULUA. DIRULAGUNTZA PUBLIKOEN KUDEAKETA</u></p> <ul style="list-style-type: none">• <i>27. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunek dirulaguntzaren xede diren jarduerak azpikontratatzea.</i>• <i>28. artikulua. dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.</i>	<p><u>CAPÍTULO III. GESTIÓN DE LAS SUBVENCIONES PÚBLICAS</u></p> <ul style="list-style-type: none">• <i>Artículo 27. Subcontratación de las actividades subvencionadas por las personas o entidades beneficiarias</i>• <i>Artículo 28. Gastos subvencionables</i>
<p><u>IV. KAPITULUA. UDALAREN DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO ETA ORGANO EMAILEAK EGIAZTATZEKO PROZEDURA</u></p> <ul style="list-style-type: none">• <i>29. artikulua. Udalaren dirulaguntzen justifikazioa</i>• <i>30. artikulua. Justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta</i>• <i>31. artikulua. Justifikatzeko kontu erraztua</i>• <i>32. artikulua. Justifikazioa kontabilitate-orrien bidez</i>• <i>33. artikulua. Justifikazioa moduluen bidez</i>• <i>34. artikulua. Entitate laguntzaileek egiten duten justifikazioaren berezitasunak</i>• <i>35. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea</i>• <i>36. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa egiaztatu eta onartzea</i>• <i>37. artikulua. Dirulaguntzak kobratzeko eskubide osoa edo zati bat galtzea eragiten duten kasuak</i>	<p><u>CAPÍTULO IV. PROCEDIMIENTO DE JUSTIFICACIÓN DE LAS SUBVENCIONES MUNICIPALES Y DE COMPROBACIÓN POR EL ÓRGANO CONCEDENTE</u></p> <ul style="list-style-type: none">• <i>Artículo 29. Justificación de las subvenciones municipales</i>• <i>Artículo 30. Cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto</i>• <i>Artículo 31. Cuenta justificativa simplificada</i>• <i>Artículo 32 Justificación mediante estados contables</i>• <i>Artículo 33. Justificación mediante módulos</i>• <i>Artículo 34. Peculiaridades de la justificación por parte de entidades colaboradoras</i>• <i>Artículo 35. Plazo de presentación de la justificación de las subvenciones</i>• <i>Artículo 36. Comprobación y aprobación de la justificación de las subvenciones</i>• <i>Artículo 37. Supuestos determinantes de la pérdida total o</i>



	<p><i>parcial del derecho al cobro de las subvenciones</i></p>
<p><u>V. KAPITULUA. AURREKONTUA KUDEATZEKO PROZEDURA</u></p> <ul style="list-style-type: none">• 38. artikulua. Gastua egiteko prozedura• 39. artikulua. Ordaintzeko prozedura	<p><u>CAPÍTULO V. PROCEDIMIENTO DE GESTIÓN PRESUPUESTARIA</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Artículo 38. Procedimiento de ejecución del gasto• Artículo 39. Procedimiento de pago
<p><u>VI. KAPITULUA. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA</u></p> <ul style="list-style-type: none">• 40. artikulua. Jasotako kopuruak itzultzeko arrazoiak• 41. artikulua. Itzulketaren izaera eta berandutze-interesak eskatzea• 42. artikulua. Itzulketa egiteko prozedura	<p><u>CAPÍTULO VI. REINTEGRO DE SUBVENCIONES</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Artículo 40. Causas del reintegro de las cantidades percibidas• Artículo 41. Naturaleza del reintegro y exigencia de intereses de demora• Artículo 42. Procedimiento de reintegro
<p><u>VII. KAPITULUA. UDALAREN DIRULAGUNTZEN KONTROL FINANTZARIOA</u></p> <ul style="list-style-type: none">• 43. artikulua. Udalaren dirulaguntzen kontrol finantzarioa	<p><u>CAPÍTULO VII. CONTROL FINANCIERO DE LAS SUBVENCIONES MUNICIPALES</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Artículo 43. Control financiero de las subvenciones municipales
<p><u>VIII. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEI BURUZKO ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK</u></p> <ul style="list-style-type: none">• 44. artikulua. Dirulaguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboak	<p><u>CAPÍTULO VIII. INFRACCIONES Y SANCIONES ADMINISTRATIVAS EN MATERIA DE SUBVENCIONES</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Artículo 44. Infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones
<p>XEDAPEN GEHIGARRIAK</p> <p>Lehena. Garapenerako lankidetzaprograma eta -proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen araubide berezia.</p>	<p>DISPOSICIONES ADICIONALES</p> <p>Primera. Régimen específico de las subvenciones para la ejecución de</p>



<p>Bigarrena. Publizitate eta konkurrentziaren mende dauden hezkuntza, kultura, zientzia edo beste edozein motatako sariak</p> <p>XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.</p> <p>Prozeduren araubide iragankorra</p> <p>XEDAPEN INDARGABETZAILEA</p> <p>AZKEN XEDAPENA</p> <p>Indarrean jartzea</p>	<p>programas y proyectos de cooperación para el desarrollo.</p> <p>Segunda. Premios educativos, culturales, científicos o de cualquier otra naturaleza sujetos a publicidad y concurrencia</p> <p>DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA.</p> <p>Régimen transitorio de los procedimientos</p> <p>DISPOSICIÓN DEROGATORIA</p> <p>DISPOSICION FINAL</p> <p>Entrada en vigor</p>
<p>ZIOEN AZALPENA</p> <p>Administrazio Publikoetan dirulaguntzaren ondoriozko harreman juridikoaren tratamendu homogeneo bat arautzeko asmoz onetsi da dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, zeina dirulaguntzen Lege Orokorren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu baitu.</p> <p>Dirulaguntzei buruzko Lege Orokor hau (DLO) hasten da Zioen Azalpenean adieraziz Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen printzipio gidariak eraman behar direla aurrekontuaren osagai guztietara; eta osagai horietako bat dira dirulaguntza publikoak, zeinak, aldi berean, gastu publiko mota garrantzitsu bat diren. Dirulaguntza publikoak emateko prozeduran eskatuko den printzipio gidarietako bat da gardentasuna; hain zuzen ere, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legean oinarritua. Bigarren printzipioa da</p>	<p>EXPOSICIÓN DE MOTIVOS</p> <p>Con la finalidad de regular un tratamiento homogéneo de la relación jurídica subvencional en las diferentes Administraciones Públicas, se ha aprobado la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que ha sido desarrollada por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, que aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.</p> <p>Esta Ley General de Subvenciones (LGS) comienza por señalar en su Exposición de Motivos la necesidad de trasladar los principios rectores de la Ley de Estabilidad Presupuestaria a los distintos componentes del presupuesto; siendo uno de sus componentes las subvenciones públicas, que a su vez constituyen una importante modalidad de gasto público. Uno de los principios rectores que van a exigirse en el procedimiento de otorgamiento de subvenciones públicas, es el de</p>



<p>eraginkortasuna eta egingarritasunarena, dirulaguntzen ondoriozko gastu publikoaren kudeaketan, dirulaguntzen gaineko informazio gehiago emanaz merkatuari kalte egin diezaioketen distortsio eta interferentziak kentzeko eta, gainera, Administrazio Publikoen jardueren arteko osagarritasuna eta koherentzia handitzeko, eta gainjartzeak, edozein motatakoak direla ere, saihesteko. Eta, azkenik, ordenantza honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa ere beteko du. Premisa horietatik abiatuta, erantzun egokia eman nahi zaie Administrazio Publikoek gauzatutako diruz laguntzeko jarduerak gaur egun eskatzen dituen betebeharreji; hain zuzen, gardentasun, kontrol finantzario eta zehapen araubidearen alderdian. Toki Administrazioei dagokienez, berriz, 3.1.b) artikulua Toki Administrazioa osatzen duten entitateak sartzen ditu aplikazio subjektiboko esparruan, eta 9. artikuluan betebeharrak hau ezartzen du: dirulaguntzak eman baino lehenago onartzea dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak, oinarri horiek Legeak aurreikusitakoarekin bat etorrira. Legearen 17.2 artikulua agintzen du Toki Korporazioen dirulaguntzak onartu behar direla aurrekontua betearazteko oinarrien esparruan, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bitartez edo dirulaguntza mota bakoitzeko ordenantza espezifiko batekin. Azaldutako zioengatik, egokiago iruditu zaigu egitea dirulaguntzen Ordenantza Orokor bat, zeinak aurreikusiko baititu gizarte-, kultura- eta kirol-arloko jarduerak eta beste jardura batzuk, alegia, udalaren esparruan deialdi gehien izaten dituztenak, hain zuzen ere, zerbitzu publikoen osagarri direlako, eta, hala, ezarritako legezko obligazioak bete, dirulaguntza desberdinen deialdiak</p>	<p>transparencia, inspirado precisamente en la Ley de Estabilidad Presupuestaria. El segundo gran principio es el de eficiencia y eficacia, en la gestión del gasto público subvencional, con una mayor información de las subvenciones para eliminar las distorsiones e interferencias que puedan afectar al mercado, además de facilitar la complementariedad y coherencia de las actuaciones de las distintas Administraciones Públicas evitando cualquier tipo de solapamiento. Y por último, esta ordenanza también cumplirá con el principio de igualdad de mujeres y hombres. Desde estas premisas se trata de responder adecuadamente a las necesidades que la actividad subvencional de las Administraciones Públicas exige actualmente en los aspectos de transparencia, control financiero y régimen sancionador. Por lo que a las Administraciones Locales se refiere, el artículo 3.1.b) incluye a las entidades que integran la Administración Local en el ámbito de aplicación subjetiva, imponiendo en el artículo 9 la obligación de aprobar con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones, las bases reguladoras de concesión en los términos previstos en la Ley. El art. 17.2 de la Ley establece que las bases reguladoras de las subvenciones de las Corporaciones Locales se deberán de aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones. Por los motivos expuestos, se ha considerado la conveniencia de elaborar una Ordenanza General de Subvenciones que contemple las actividades de tipo social, cultural, deportivas y otras, cuyas convocatorias son las más frecuentes en el ámbito</p>
---	--



<p>onartu aurretik, zehaztaperen orokor hauek kontuan hartuta.</p>	<p>municipal, precisamente por su carácter complementario de los servicios públicos, y de esta forma, cumplir con las obligaciones legales impuestas, previas a la aprobación de las diferentes convocatorias de subvenciones, teniendo en cuenta estas determinaciones generales.</p>
<p>TOLOSAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA</p>	<p>ORDENANZA GENERAL DE SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA</p>
<p>I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK</p>	<p>CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES</p>
<p><i>1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremu orokorra.</i></p> <p>1.- Ordenantza honek duen helburua da Tolosako Udalak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzea dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean (aurrerantzean DLO), 3.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrita. Ordenantza hau egin da aipatutako lege horren 17.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.</p> <p>2.- Tolosako Udalak ematen dituen dirulaguntzek helburutzat izan dezakete herri onurako edo interes sozialeko jarduera bat sustatzea, edo Udalaren jardueraren osagarri den edozein xede publiko bultzatzea, baldin eta jarduera eta xede horiek herritarren beharrak eta nahiak asetzen laguntzen badute.</p> <p>3.- Era berean, otsailaren 20ko 1/2023 Legeak, Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzkoak, hirugarren xedapen</p>	<p><i>Artículo 1. Objeto y ámbito general de aplicación</i></p> <p>1.- La presente ordenanza tiene por objeto la regulación del régimen jurídico general de subvenciones que se otorguen por el Ayuntamiento de Tolosa en los términos establecidos en el artículo 3.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante LGS), y se dicta al amparo de lo establecido en el artículo 17.2 de la indicada ley.</p> <p>2.- Las subvenciones que se otorguen por el Ayuntamiento de Tolosa podrán tener por objeto el fomento de cualquier actividad de utilidad pública o interés social o la promoción de cualquier finalidad pública complementaria de la actividad municipal, siempre que contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal.</p> <p>3.- Asimismo, de conformidad con el la disposición adicional tercera de la Ley 1/2023, de 20 de febrero, de Cooperación</p>



<p>osagarriak dioenarekin bat etorrira, dirulaguntzak eman ahal izango dira garapenerako lankidetzak-programak eta -proiektuak gauzatzeko; ordenantza hau aplikatuko da, hain zuzen, hirugarren xedapen osagarrian ezarritakoaren arabera.</p> <p>4.- Udal dirulaguntza publikoen deialdietan edo, dirulaguntza zuzenean ematea bidezkoa denean, horri dagozkion ebazpen edo hitzarmenetan, zehatz mugatuko dira helburua, baldintzak eta, hala badagokio, lortu nahi den xedea.</p>	<p>para el Desarrollo Sostenible y la Solidaridad Global, podrán otorgarse subvenciones para la ejecución de programas y proyectos de cooperación para el desarrollo, siendo la presente ordenanza de aplicación en los términos que se establecen en la disposición adicional tercera.</p> <p>4.- En las convocatorias públicas de subvenciones municipales o, cuando proceda la concesión directa, en las correspondientes resoluciones o convenios, se delimitará con precisión el objeto, condiciones y finalidad que, en su caso, se persiga.</p>
<p><i>2. artikulua. Udal dirulaguntza zein den.</i></p> <p>1. Udal dirulaguntzat hartuko da Tolosako Udalak pertsona pribatu zein publikoen alde dirua baliatzea, betiere baldintza hauek betetzen baldin badira:</p> <p>a) Dirulaguntza pertsona edo entitate onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe eman behar da.</p> <p>b) Diru-ematearen helburuak izan behar du xede jakin bat betetzea, proiektu bat gauzatzea, jarduera bat egitea, portaera berezi bat hartzea (horiek denak eginda edo oraindik garatzeko), edo egoera jakin bat gertatzea, eta dirulaguntzaren onuradunak ezarritako obligazio material eta formalak bete behar ditu.</p> <p>c) Finantzaturiko proiektu, ekintza, portaera edo egoeraren helburua izan behar du herri onurako edo</p>	<p><i>Artículo 2. Concepto de subvención municipal</i></p> <p>1. Se entiende por subvención municipal toda disposición dineraria que realice el Ayuntamiento de Tolosa a favor de personas públicas o privadas, siempre que cumplan los siguientes requisitos:</p> <p>a) Que la entrega se realice sin contraprestación directa de las personas o entidades beneficiarias.</p> <p>b) Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo la parte beneficiaria cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.</p>



<p>interes sozialeko jarduera bat sustatzea, edo interes sozialeko helburu publikoren bat bultzatzea.</p> <p>2. DLOren 2.2.4 artikuluan zerrendatutako kasuek ez dute udal dirulaguntzaren izaerarik izango.</p>	<p>c) Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública de interés social.</p> <p>2. No tienen carácter de subvenciones municipales los supuestos relacionados en el artículo 2.2.4 de la LGS.</p>
<p>3. <i>artikulua. Aplikazio eremu subjektibo eta materialak.</i></p> <p>1. Tolosako Udalaren mende dauden eta zuzenbide pribatuari lotuta dauden sektore publikoko erakundeek Udal horren aginduz jarduten dutenean bakarrik eman ahal izango dituzte dirulaguntzak, eta Udalaren berezko bitartekoa izan beharko dute nahitaez. Kasu horretan, dirulaguntzak emateko, ordenantza honetan eta dirulaguntzen arloko legerian ezarritakoa bete behar dute.</p> <p>2. Tolosako Udalaren sektore publikoko merkataritza-sozietateek eman ditzaketen dirulaguntzei aplikagarria izango zaie Ordenantza Orokor hau, betiere Udalaren berezko bitartekotzat hartzen badira.</p> <p>3. Ordenantza honen aplikazio eremutik kanpo daude honako hauek:</p> <p>a) Pertsona edo entitate onuradunak aurretik eskatu gabe ematen diren sariak; dagokien deialdiko araudian ezarritakoa izango dute aginduzkoa sari horiek.</p> <p>b) Udal aurrekontuetan korporazioko talde politikoentzat</p>	<p><i>Artículo 3. Ámbitos de aplicación subjetivo y material</i></p> <p>1. Las entidades del sector público que dependan del Ayuntamiento de Tolosa y estén sujetas al derecho privado sólo podrán conceder subvenciones cuando actúen por orden de dicho Ayuntamiento, debiendo contar necesariamente con el medio propio del mismo. En este caso, la concesión de las subvenciones se regirá por lo establecido en la presente Ordenanza y en la legislación subvencional.</p> <p>2. Será de aplicación la presente ordenanza a las subvenciones que puedan otorgar las sociedades mercantiles del sector público del Ayuntamiento de Tolosa, siempre que se consideren medios propios del Ayuntamiento.</p> <p>3. Quedan excluidos del ámbito de aplicación de esta ordenanza:</p> <p>a) Los premios que se otorguen sin la previa solicitud de la persona o entidad beneficiaria, que se regirán por lo que establezca la normativa de su convocatoria.</p>



<p>urtero ezarritako zuzkidura ekonomikoak, Osoko Bilkuraren erabakietan eta toki araubideari buruzko legerian ezarritakoaren arabera.</p> <p>c) Beste administrazio batzuei egindako diru-ekarpenak, bai eta haien aurrekontuak Tolosako Udalaren aurrekontu orokorraren barruan dituzten erakunde edo entitate publikoei egin beharrekoak ere, bai osoki beren jarduera finantzatzera zuzenduta badaude, bai jarduera jakin batzuk egitera zuzenduta badaude. Diru-ekarpen horiek Udal Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan aurreikusitakoaren arabera gauzatuko dira.</p> <p>d) Diru-ekarpenak, Tolosako Udalak eginikoak, hain zuzen, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren elkarreentzako ohiko edo ezohiko kuota gisa eginiko diru-ekarpenak.</p> <p>e) Europar Batasunaren, Estatuaren edo Erkidego Autonomoen funtsekin gauzatzen direnak, horiek aginduzko izango baitituzte kasu bakoitzean aplikagarri diren arau propioak.</p> <p>f) Jatorria kontratu administratiboetan duten transferentziak, horiek aginduzko izango baitute kontratu horietan ezarritakoa.</p> <p>g) Korporazioa beste administrazio baten kolaboratzaile gisa ari dela ematen diren dirulaguntzak. Kasu</p>	<p>b) Las dotaciones económicas anuales establecidas en los Presupuestos Municipales destinadas a los grupos políticos de la corporación, de acuerdo con lo establecido en los correspondientes acuerdos del Pleno y en la legislación de régimen local.</p> <p>c) Las aportaciones dinerarias a otras administraciones, así como las que hayan de realizarse a organismos y entes públicos cuyos presupuestos se integren en el Presupuesto General del Ayuntamiento de Tolosa, tanto si se destinan a financiar globalmente su actividad como a la realización de actuaciones concretas, las cuales se harán efectivas de acuerdo con lo previsto en las bases de ejecución del Presupuesto Municipal.</p> <p>d) Las aportaciones dinerarias que en concepto de cuotas, tanto ordinarias como extraordinarias, realice el Ayuntamiento de Tolosa a favor de las asociaciones a que se refiere la disposición adicional quinta de la Ley 7/1985, reguladora de las bases de Régimen Local.</p> <p>e) Las que se instrumenten con fondos de la Unión Europea, del Estado o de las Comunidades Autónomas, que se regirán por las normas propias aplicables en cada caso.</p> <p>f) Las transferencias que tengan su origen en contratos administrativos, que se regirán por lo establecido en los mismos.</p>
--	--



<p>horretan aplikagarri izango dira dirulaguntza ematen duen entitatearen oinarri arautzaileak eta helburu horretarako egindako hitzarmena.</p> <p>h) Gizarte-larrialdietarako laguntza ekonomikoak, horiek beren araudi berezia izango baitute aginduzko.</p>	<p>g) Subvenciones en las que la corporación actúe como entidad colaboradora de otra administración, en cuyo caso serán de aplicación las bases reguladoras de la entidad concedente y el convenio que se suscriba al efecto.</p> <p>h) Las ayudas económicas de emergencia social que se registrarán por su normativa específica.</p>
<p><i>4. artikulua. Araubide juridikoa.</i></p> <p>1. Tolosako Udalaren dirulaguntzek aginduzko izango dituzte, batetik, Ordenantza honetan, DLOn eta hura garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Araudian (aurrerantzean DLOren Araudia) jasotako preskripzioak; bestetik, eman litezkeen ordenantzak edo oinarri espezifikoak, aurrekontua gauzatzeko udal araua, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 legea, unean-unean Tolosako Udalak euskararen erabileraren normalizazioari begira indarrean duen plana, 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa eta dirulaguntza horiei aplikatu beharreko gainerako arauak.</p> <p>2. Europar Batasunaren funtsen kontura finantzatutako dirulaguntzek aginduzko</p>	<p><i>Artículo 4. Régimen jurídico</i></p> <p>1. Las subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa se registrarán por las prescripciones contenidas en esta Ordenanza, en la LGS y su Reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (en adelante Reglamento de la LGS), por las ordenanzas o bases específicas que se pudieran dictar, por la norma municipal de ejecución presupuestaria, por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, por la Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres, por el DECRETO 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las entidades locales de Euskadi y por las restantes normas que resulten de aplicación.</p> <p>2. Las subvenciones financiadas con cargo a fondos de la Unión Europea se registrarán por las normas comunitarias aplicables en cada caso y por las normas nacionales de desarrollo o transposición de aquéllas. Los procedimientos de</p>



<p>izango dituzte kasu bakoitzean aplikagarri diren arau europarrak eta haiek garatu edo tokian-tokian txertatzeko arau nazionalak. Ordenantza honetan dirulaguntzak eman eta kontrolatzeko arautzen diren prozedurek ordezkotza osagarria izango dute Europar Batasunaren funtsen kontura finantzatutako dirulaguntzei zuzenean aplikatu beharreko araei dagokienez.</p>	<p>concesión y control de las subvenciones reguladas en esta ordenanza tendrán carácter supletorio respecto de las normas de aplicación directa a las subvenciones financiadas con cargo a fondos de la Unión Europea.</p>
<p><i>5. artikulua. Printzipio orokorrak.</i></p> <p>1. Oro har, printzipio hauek gidatuko dute dirulaguntzen kudeaketa: publikotasuna, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, jarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko eragingarritasuna.</p> <p>2. Ordenantza honetan araututako dirulaguntzak eta sariak emateko prozedurak egokitu beharko dira, batetik, indarrean dagoen legerian jasotako karga administratiboak sinplifikatzeko eta gutxitzeko irizpide orokorretara eta, bestetik, barne merkatuko zerbitzuei buruzko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/CE Zuzentzura.</p>	<p><i>Artículo 5. Principios generales</i></p> <p>1. Con carácter general, la gestión de las subvenciones estará presidida por los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación, eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados y eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.</p> <p>2. Los procedimientos de concesión de subvenciones y premios regulados en la presente Ordenanza deberán adaptarse a los criterios generales de simplificación y reducción de cargas administrativas contenidos en la normativa vigente y a la Directiva 2006/123/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de diciembre de 2006, relativa a los servicios en el mercado interior.</p>
<p><i>6. artikulua. Dirulaguntzen Plan Estrategikoak.</i></p> <p>1. Tolosako Udalak eta bere erakunde autonomoek, dirulaguntzak ezarri aurretik, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan zehaztu beharko dute zer helburu eta ondorio lortu nahi diren dirulaguntzak aplikatuta, zein diren horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta</p>	<p><i>Artículo 6. Plan estratégico de subvenciones</i></p> <p>1. El Ayuntamiento de Tolosa, con carácter previo al establecimiento de subvenciones, deberá concretar en el Plan Estratégico de Subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus</p>



<p>finantzaketa-iturriak, baina betiere, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen baldintzarekin.</p> <p>Dirulaguntza bakoitzaren oinarri arautzaileek Dirulaguntzen Plan Estrategikoari egingo diote erreferentzia, eta adieraziko dute nola laguntzen duten helburuak lortzen; bestela, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa dirulaguntza berria ezartzea, Planean aurreikusi ez bada ere, eta nola eragiten dion hori betetzeari.</p> <p>2. Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa Udaleko Osoko Bilkurak onartu behar du. Hiru urteko indarraldia izango dute, baina izango da aukera, salbuespen gisa eta arrazoituta, beste epe bat jartzeko ere, baldin eta komenigarria bada.</p>	<p>fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.</p> <p>Las bases reguladoras de cada subvención harán referencia al Plan estratégico de subvenciones en el que se integran, señalando de qué modo contribuyen al logro de sus objetivos; en otro caso, deberá motivarse por qué es necesario establecer la nueva subvención, incluso aun no habiendo sido prevista en el Plan, y la forma en que afecta a su cumplimiento.</p> <p>2. El Plan Estratégico municipal de Subvenciones será aprobado por el Pleno Municipal. Tendrán una vigencia de tres años, salvo que, motivadamente, sea conveniente establecer un plazo diferente.</p>
<p><i>7. artikulua. Dirulaguntzak emateko baldintzak.</i></p> <p>1. Dirulaguntzak emateko, aurretik baldintza hauek bete behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Organo administratibo emaileak eskuduna izan behar du.b) Aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa egon behar du dirulaguntza ematearen ondorio diren eduki ekonomikoko obligazioei erantzun ahal izateko.c) Dirulaguntza emateko prozedura izapidetu behar da berari aplikagarri zaizkion arauekin bat etorritz.d) Eduki ekonomikoa duten egintza administratiboak aldeztu aurretik	<p><i>Artículo 7. Requisitos para el otorgamiento de las subvenciones</i></p> <p>1. Serán requisitos previos para el otorgamiento de subvenciones, los siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none">a) La competencia del órgano administrativo concedente.b) La existencia de crédito presupuestario adecuado y suficiente para atender las obligaciones de contenido económico que se derivan de la concesión de la subvención.c) La tramitación del procedimiento de concesión de acuerdo con las normas que resulten de aplicación.



<p>fiskalizatu behar dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera.</p> <p>e) Organo eskudunak gastua onetsi behar du.</p> <p>2. Aurreko baldintzez gain, ezinbesteko baldintza izango da, oro har, Tolosako udalerriko lurralde eremuan izatea proiektuaren xedea, helburua eta betearazpena, jardueraren gauzatzea, jokaera berezia hartzea –bai horiek denak beteta badaude, bai garatze-bidean badaude ere–, edo diruz lagundu beharreko egoera gertatzea. Diruz lagundutako inguruabarrak edo zirkunstantziak Tolosako udalerriko lurralde eremua gainditzen duen kasu berezietan, berriz, baldintza izango da udal interesari onura egitea zuzenean edo zeharka; azken baldintza hori espedientean behar bezala justifikatu beharko da, arrazoitutako txosten baten bidez, dirulaguntza eman aurretik.</p> <p>3. Era berean, ezinbesteko baldintza izango da agiri, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista baliatzea, estereotipo sexistak edo emakumeen bereizkeria eragin ditzaketen irudi oro saihestea eta honako balio hauek sustatzea: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna, eta genero-eginkizunen eta identitateen aniztasuna.</p> <p>4. Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107., 108. eta 109. artikuluen eragina duten dirulaguntzen kasuetan, berriz, jarraituko zaio DLOren 9.1.</p>	<p>d) La fiscalización previa de los actos administrativos de contenido económico, en los términos previstos en la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.</p> <p>e) La aprobación del gasto por el órgano competente para ello.</p> <p>2. Además de los requisitos anteriores, será requisito imprescindible que el fin, objetivo, ejecución del proyecto, la realización de la actividad, la adopción del comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de la situación a subvencionar, deberá radicar, con carácter general, en el ámbito territorial del municipio de Tolosa. Para el caso excepcional de que la circunstancia subvencionada exceda del ámbito del término municipal de Tolosa, deberá beneficiar al interés municipal de forma directa o indirecta, condición esta última que deberá quedar suficientemente justificada en el expediente, mediante informe motivado, con carácter previo a su concesión.</p> <p>3. De la misma manera, será requisito imprescindible que toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género.</p> <p>4. En aquellos casos de subvenciones afectadas por los artículos 107 a 109 del</p>
---	---



<p>artikuluaren eta DL Oren Araudiaren 16.ean aurreikusitako jardute-araubideari:</p>	<p>Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, se seguirá el régimen de actuación previsto en los artículo 9.1 de la LGS y 16 Reglamento de la LGS.</p>
<p><i>8. artikulua. Dirulaguntzak emateko organo eskudunak</i></p> <p>1. Tolosako Udalean dirulaguntzak emateko eskumena Alkatetzari dagokio; hala ere, beste baten esku utz dezake eskumen hori, toki araubideari buruzko legerian aurreikusitakoari jarraituta.</p>	<p><i>Artículo 8. Órganos competentes para la concesión de subvenciones</i></p> <p>1. En el Ayuntamiento de Tolosa la competencia para conceder subvenciones corresponde a la Alcaldía, sin perjuicio de que pueda delegar dicha atribución en los términos previstos en la legislación de régimen local.</p>
<p><i>9. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunak</i></p> <p>1. Dirulaguntzen onuradun izango dira dirulaguntza horiek emateko oinarria izan den jarduera egin behar duten pertsona fisiko edo juridikoak edota dirulaguntza ematea legezko egiten duen egoeran daudenak.</p> <p>2. Onuraduna pertsona juridiko bat denean, eta aukera hori aurreikusita badago deialdian edo, zuzenean emateko kasuetan, hitzarmenean edo ebazpenean, pertsona onuraduntzat hartuko dira, halaber, pertsona juridiko horren bazkideak, baldin eta dirulaguntza emateko arrazoi diren jarduerak pertsona juridiko horren izenean osorik edo zati batez egiteko konpromisoa hartzen badute, ordenantza honen 10.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta.</p> <p>3. Era berean, dirulaguntzen onuradunak izan daitezke, haien deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki hala aurreikusita badago, pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen</p>	<p><i>Artículo 9. Personas o entidades beneficiarias</i></p> <p>1. Serán beneficiarias de subvenciones las personas físicas o jurídicas que hayan de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento o que se encuentren en la situación que legitima su concesión.</p> <p>2. Cuando la beneficiaria sea una persona jurídica, y siempre que así se prevea en la convocatoria o, en los supuestos de concesión directa, en el convenio o resolución, las personas asociadas de la beneficiaria que se comprometan a efectuar la totalidad o parte de las actividades que fundamentan la concesión de la subvención en nombre y por cuenta de la primera, tendrán igualmente la consideración de beneficiarias, con arreglo a lo establecido en el artículo 10.3 de esta ordenanza.</p> <p>3. Asimismo, podrán acceder a la condición de beneficiarias de las subvenciones cuya convocatoria, convenio o resolución expresamente lo prevea, las agrupaciones de personas</p>



<p>elkarteak, ondasun erkidegoak edota beste edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bananduak, nortasun juridikorik izan ez arren, baldin eta proiektu, jarduera edo jokaerak gauzatzeko gauza badira edo dirulaguntza emateko arrazoi den egoeran badaude, ordenantza honen 10. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.</p>	<p>físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la subvención, en los términos que se detallan en el artículo 10 de esta ordenanza.</p>
<p>10. artikulua. Onuradun izateko baldintzak</p> <p>1. Onuradun izan daitezke 9. artikuluan aipatutako pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Dirulaguntza ematea oinarritzen duen egoeran egotea, edo ordenantza honetan eta oinarri arautzaile, deialdi, hitzarmen edo emakida-ebazpen bakoitzean aurreikusitako inguruabarren egoeran egotea.2. Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin eta Tolosako Udalarekin zerga-betebeharrak egunean izatea. Pertsona edo erakunde eskatzaile batek udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela ulertuko da, baldin eta tokiko zergen aitorpenak eta autolikidazioak aurkeztu baditu eta ez badu zerga-zor edo -zehapenik korporazio horrekin betearazpen-aldian, salbu eta geroratuta edo zatituta badaude edo haien betearazpena etenda badago. Egoera hori egiaztatu	<p>Artículo 10. Requisitos para obtener la condición de beneficiaria.</p> <p>1. Podrán obtener la condición de beneficiaria las personas físicas o jurídicas y las entidades referidas en el artículo 9, que cumplan con los siguientes requisitos:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Encontrarse en la situación que fundamenta la concesión de la subvención o en las que concurren las circunstancias previstas en la presente ordenanza y en cada una de las bases reguladoras, convocatorias, convenios o resoluciones de concesión2. Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con Hacienda, la Seguridad Social y el Ayuntamiento de Tolosa. <p>Se considerará que una persona o entidad solicitante está al corriente de obligaciones tributarias con la corporación cuando hubiera presentado las declaraciones y autoliquidaciones correspondientes a los tributos locales y no mantenga deudas o</p>



<p>behar den kasuetan, instrukzio-organoak xostena eskatuko dio zuzenean udaleko Diruzaintzari.</p> <p>3. Ez izatea zerga-zor edo -zehapenik Tolosako Udalarekin betearazpenaldian, salbu eta geroratuta, zatituta edo betearazpena etenda badago.</p> <p>4. Gainera, ordenantza espezifikoa, oinarri arautzaileetan eta/edo deialdian berariaz adierazten diren baldintzak bete beharko dira, eta horiek egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dira dirulaguntzaren eskabidearekin batera.</p> <p>2. Dirulaguntza elkarte eta fundazioek eskatzen dutenean, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko dute.</p> <p>3. Dirulaguntza pertsona juridiko batek eskatzen badu, diruz lagundutako jarduerak bat etorri beharko du eskatzailearen xede edo helburu sozialekin.</p> <p>4. Ordenantzaren 9.2 artikuluan adierazitako ondorioetarako, pertsona edo erakunde onuradunaren (aurrerantzean, onuraduna) bazkidetzat hartuko dira nortasun juridikoa duten eta dirulaguntzak eskatzen dituzten federazio edo elkarteetan biltzen diren pertsona fisiko edo juridikoak. Erakunde horiek eta haiek osatzen dituzten kideak onuradun izan daitezten, konpromisoa hartu</p>	<p>sanciones tributarias en periodo ejecutivo con la misma, salvo que se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida. En los casos en que sea necesario acreditar dicha situación, el órgano instructor recabará directamente informe a la Tesorería Municipal</p> <p>3. No mantener deudas o sanciones tributarias en periodo ejecutivo con el Ayuntamiento de Tolosa, salvo que se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.</p> <p>4. Además, se deberán reunir los requisitos que específicamente se indiquen en la ordenanza específica, bases reguladoras y/o convocatoria, debiendo aportar la documentación acreditativa de los mismos junto a la solicitud de subvención.</p> <p>2. Cuando la subvención se solicite por parte de asociaciones y fundaciones tendrán que estar inscritas en el correspondiente registro oficial.</p> <p>3. Cuando la subvención se solicite por una persona jurídica se requerirá que la realización de la actividad subvencionada tenga cabida dentro del objeto o fines sociales de la misma.</p> <p>4. A los efectos indicados en el artículo 9.2 de esa ordenanza, se considerarán asociadas de la persona o entidad beneficiaria (en adelante beneficiaria) las personas físicas o jurídicas que se integren en federaciones o entidades asociativas solicitantes de subvenciones que estén dotadas de personalidad</p>
--	--



<p>beharko dute, dirulaguntza eman ondoren hitzarmen edo akordio bat formalizatzeko. Hitzarmen edo akordio horretan aipatu beharko dituzte dirulaguntza jaso duten eta onuradunaren kontura gauzatu behar dituzten jarduerak, eta onuradun izatea onartzen dutela adieraziko dute, dagozkien betebeharrekin, eskabidean adierazitako moduan.</p>	<p>jurídica. Para que las mencionadas entidades y las personas que la integran tengan la condición de beneficiarias deberán comprometerse a formalizar un convenio o acuerdo, una vez concedida la subvención, en el que consten las actividades subvencionadas que se obligan a ejecutar por cuenta de esta y expresen su aceptación de asumir la condición de beneficiaria, con sus correspondientes obligaciones en los términos expresados en la solicitud.</p>
<p>5. DLOren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen bada dirulaguntza eskatzen duen konfederazio, federazio edo elkartean, ezin izango zaio eskatutako dirulaguntza eman erakunde horri, ezta haren kide diren pertsona edo erakundeek ere, ezta azken horietan ez badago inolako eragozpen-egoerarik ere. Hala ere, onuradunari elkartutako pertsona edo erakunderen batean adierazitako inguruabarren bat gertatzen bada, eskatzaile den konfederazio, federazio edo elkarteak bakarrik jaso ahal izango du dirulaguntza; bai eta eragozpen-inguruabarrik ez duten pertsona edo erakunde elkartuek ere.</p>	<p>5. Cuando concurriera alguna de las circunstancias previstas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la LGS en la confederación, federación o entidad asociativa solicitante de la subvención, no podrá concederse la subvención solicitada ni a ésta ni a ninguna de sus personas o entidades asociadas, con independencia de que no concurriera impedimento alguno en estas últimas. Sin embargo, cuando concurriera alguna de las circunstancias indicadas en alguna de las personas o entidades asociadas de la beneficiaria, únicamente podrán acceder a la subvención la confederación, federación o entidad asociativa solicitante de la subvención, y aquellas de sus personas o entidades asociadas en las que no concurriera el impedimento.</p>
<p>6. Onuradunarekin elkartutako pertsonak edo erakundeek proiektua edo jarduera onuradunarekin batera, elkarrekin, egin nahi badute, dirulaguntza lortzeko baldintzen balorazioa haietako bakoitzarenak batuz zehaztuko da, baina onuradun izateko betekizunak pertsona horietako bakoitzari eskatu ahal izango zaizkio.</p>	<p>6. Cuando las personas o entidades asociadas de la beneficiaria y ésta pretendan actuar mancomunadamente en la realización del proyecto o actividad, la valoración de las condiciones para acceder a la subvención se determinará acumulando las de cada una de ellas, pero los requisitos para acceder a la condición de beneficiaria serán exigibles de cada una de dichas personas.</p>



<p>7. Izaera juridikorik izan ez arren, ordenantza honen 9.3 artikuluan aipatzen diren proiektuak, jarduerak edo portaerak egin ditzaketen pertsona fisiko edo juridikoen –publiko edo pribatuen– taldeei dagokienez, onuradun izateko ezinbesteko baldintza izango da taldeak berak eta hura osatzen duten pertsona edo erakundeek DLOren 13.2 artikuluan ezartzen diren debekuetako bakar bat ere ez izatea. Kasu horietan, eskabidean eta dirulaguntza emateko ebazpenean berariaz adierazi beharko dira taldeko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Taldearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituena, eta ezin izango da taldea desegin DLOren 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.</p> <p>Taldea osatzen duten pertsonak edo erakundeek proiektua edo jarduera gauzatzeko elkarrekin aritu nahi badute, dirulaguntza jasotzeko baldintzak eta balorazioa zehazteko, denenak metatu egingo dira.</p>	<p>7. Respecto de las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos que motivan la concesión de la subvención a las que se refiere el artículo 9.3 de esta ordenanza constituirá requisito necesario para que adquieran la condición de beneficiaria que no incurra en ninguna de las prohibiciones que se establecen en el artículo 13.2 de la LGS la agrupación ni ninguna de las personas o entidades integrantes. En estos supuestos, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada componente de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos y ellas, que tendrán igualmente la consideración de personas beneficiarias. Deberá nombrarse una persona representante o apoderada única de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiaria, corresponden a la agrupación, que no podrá disolverse hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 39 y 65 de la LGS.</p> <p>Cuando las personas o entidades integrantes de la agrupación pretendan actuar mancomunadamente en la realización del proyecto o actividad, las condiciones para acceder a la subvención y la valoración se determinarán acumulando las de cada una de ellas.</p>
---	--



<p>8. Ondasun-erkidegoei edo edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bereiziri dagokienez, hala nola jabeen erkidegoei, jaraunspen-erkidegoei, partaidetza-kontuen elkarteei, eta, oro har, nortasun juridikorik izan ez arren administrazio komun egonkorra duten ondare-oinarriko erakundeei, betiere proiektuak, jarduerak edo portaerak gauzatzeko aukera ematen badie, edo dirulaguntza ematea eragin duen egoeran badaude, ez zaie eskatuko onuradun izateko betekizunak betetzea.</p> <p>Aurreko paragrafoan aipatutako erakundeei aplikagarriak zaizkie DLOren 13. artikulua 2. paragrafoan ezarritako debekuak.</p> <p>9. Pertsona fisikoak edo juridikoak bete beharreko xedek emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia badu, oinarri arautzaileetan baldintza hauetako bat jasoko da, gutxienez:</p> <ol style="list-style-type: none">1.- Erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izan duen ibilbide eta esperientzia espezifikoa, azken hiru urteetan egindako jarduerak eta lan garrantzitsuenak adierazita (eskatutako lanen eta fakturazioen gutxienezko kopurua zehaztuta).2.- Langileek genero-gaietan duten titulazioa, prestakuntza eta curriculum (hauek zehaztuta: pertsona kopurua, esperientzia-urteak eta eskatutako gutxienezko lanak eta berdintasunaren arloko prestakuntza-orduak).	<p>8. En relación con las comunidades de bienes o cualquier tipo de unidad económica o patrimonio separado, tales como comunidades de personas propietarias, comunidades hereditarias, asociaciones de cuentas en participación, y, en general, las entidades de base patrimonial que, aun careciendo de personalidad jurídica, cuenten con una administración común estable, siempre que les permite llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos, o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la subvención, los requisitos para acceder a la condición de beneficiario/a no serán exigibles.</p> <p>Las entidades mencionadas en el párrafo anterior se encuentran incursas en las prohibiciones establecidas en el apartado 2 del artículo 13 de la LGS.</p> <p>9. Si el objeto a cumplir por parte de la persona física o jurídica tiene relación con la igualdad de mujeres y hombres, las bases reguladoras incluirán al menos una de estas condiciones:</p> <ol style="list-style-type: none">1.- Trayectoria y experiencia específicas de la entidad en materia de igualdad de mujeres y hombres, con indicación de las actuaciones y trabajos más relevantes realizados en los últimos tres años (especificando el número mínimo de trabajos y facturaciones requeridos).2.- Titulación, formación y currículum de la formación en género del personal (especificando número de personas, años de experiencia y trabajos mínimos requeridos y
--	---



<p>3.- Berdintasunaren arloko ziurtagiri edo enpresa-bereizgarri bat izatea, edo halakorik ezean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaile edo antzeko batek emandako ziurtagiri ofizial bat izatea.</p> <p>4.- Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua erakundearen edo enpresaren batzordean, zuzendaritza-organoan, administrazio-kontseiluan edo plantillan.</p> <p>5.- Erakundearen eratze-eskrituran edo estatutuetan helburuen egotea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egitea.</p>	<p>horas de formación en materia de igualdad).</p> <p>3.- Estar en posesión de un certificado o distintivo de empresa en materia de igualdad o, en su defecto, de una entidad colaboradora en igualdad de mujeres y hombres u otra certificación oficial similar.</p> <p>4.- Presencia equilibrada de mujeres y hombres en la junta, órgano de dirección, consejo de administración o plantilla de la entidad o empresa.</p> <p>5.- Que uno de los fines recogidos en la escritura de constitución o en los estatutos de la entidad sea trabajar por la igualdad de mujeres y hombres.</p>
<p>10. Ezingo dira onuradun izan ebazpen irmoaren bidez eskubidea galdua duten pertsonak, edo DLOren 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenak.</p>	<p>10. No podrán obtener la condición de beneficiarias las personas que hayan sido sancionadas por resolución firme, con la pérdida del derecho por el plazo que determine la resolución o se encuentren en cualquiera de los otros supuestos señalados en el artículo 13 de LGS.</p>
<p>11. Hala ere, dirulaguntzaren izaeragatik eta aipatutako 13. artikuluko 2. ataleko lehen paragrafoan jasotako aurreikuspenaren babesean, b) eta e) idatz-zatietan jasotako debekuetatik salbuetsita daude pertsona edo erakunde hauek:</p> <p>a) Partikularrentzako laguntzak, baldin eta horiek ematea errenta-maila baxuagatik mugatu edo justifikatzen bada, edo jasotzen dituenaren errenta-maila baxua konpentsatzeko badira.</p>	<p>11. No obstante a lo anterior, por la naturaleza de la subvención y al amparo de la previsión contenida en el primer párrafo del apartado 2 del citado artículo 13, quedan exceptuadas de las prohibiciones que contienen las letras b) y e) las personas o entidades siguientes:</p> <p>a) Las ayudas a particulares cuya concesión venga delimitada o justificada por su bajo nivel de renta, o que tenga carácter compensatorio del bajo nivel de renta de quien las percibe.</p>



<p>b) Larrialdiagatik emandakoak, naturak eragindako hondamendi edo istripuen ondoriozko kalteak, eta ageriko urgentziako beste batzuk konpontzeko. Dirulaguntza eta laguntza horien deialdietan, legezko beste debeku-kasu batzuen aplikazioa salbuetsi ahal izango da, arrazoiak emanez.</p>	<p>b) Las otorgadas por razones de urgencia para reparar los daños derivados de catástrofes o accidentes provocados por la naturaleza y otros de reconocida urgencia. Las convocatorias de estas subvenciones y ayudas podrán exceptuar, de forma motivada, la aplicación de otros supuestos legales de prohibición.</p>
<p>12 Ez dira inola ere pertsona edo erakunde onuradun izango Tolosako Udalak emandako dirulaguntzak justifikatzeko ezarritako epea amaitu ondoren, justifikazio horiek aurkezteke dituztenak, kontuan hartu gabe DLOren Erregelamenduaren 70.3 artikuluan aipatzen den errekerimendua egin den edo ez. Debeku hori automatikoki beteko da, eta justifikaziorik aurkezte ez den bitartean iraungo du.</p>	<p>12. En ningún caso podrán acceder a la condición de persona o entidad beneficiaria quienes tengan pendientes de justificación subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Tolosa una vez haya concluido el plazo establecido para su presentación, con independencia de que el requerimiento a que se refiere el artículo 70.3 del Reglamento de la LGS se hubiera realizado o no. La apreciación de esta prohibición se realizará de forma automática y subsistirá mientras perdure la ausencia de justificación.</p>
<p>13. Inola ere ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean onuradun edo erakunde laguntzaile izateko desgaituta daudenak baldin eta desgaituntza-aldian badaude.</p>	<p>13. En ningún caso podrá acceder a la condición de beneficiaria quienes consten inhabilitados/as para acceder a la condición de beneficiaria o entidad colaboradora en la Base de Datos Nacional de Subvenciones durante el periodo de inhabilitación.</p>
<p>14. Era berean, ezingo dute parte hartu, eta ezingo dira onuradun izan hauek:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten xede edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea,	<p>14. A su vez, no podrán participar y estarán excluidas de la condición de personas o entidades beneficiarias:</p> <ol style="list-style-type: none">1.- Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria,



<p>jarduketa, antolaketa edo estatutuak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.</p> <p>2. Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko bereizkeriarik ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigorzehapen irmoa jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak.</p> <p>3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten erakundeak edo enpresak.</p> <p>4. Era berean, ez dira diruz lagunduko emakumeen edo emakume-taldeen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten jarduerak, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar</p>	<p>actuación, organización o estatutos vulneren el principio de igualdad de mujeres y hombres.</p> <p>2.- Las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa, laboral o penalmente de forma firme por haber vulnerado el derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.</p> <p>3.- Entidades o empresas que no cumplan los requisitos establecidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.</p> <p>4.- Tampoco serán objeto de subvención las actividades que supongan discriminación por razón de sexo o factores de discriminación múltiple, de mujeres o grupos de mujeres, cuando concurren otros factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación, tales como la raza, el color, el origen étnico, la lengua, la religión, la opinión política o de otra índole, la pertenencia a una minoría nacional, el patrimonio, el lugar de nacimiento, la discapacidad, la edad, la orientación sexual, la identidad de género, la expresión de género, el proceso migratorio, el estatus de refugiado, la cultura, el origen rural, la situación de exclusión social, la situación de seropositividad, la familia</p>
--	--



<p>pertsonal, sozial edo administratibo.</p> <p>Honako hauen arabera ezartzen da debekua: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4., 3.1 eta 24.2 artikulua, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulua, 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.</p>	<p>monoparental, la configuración familiar o cualquier otra condición o circunstancia personal, social o administrativa.</p> <p>Se establece la prohibición conforme a lo establecido en los artículos 4, 3 y 27.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres; el artículo 13.3 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones; el artículo 50.5 del Decreto Legislativo 1/1997, y el artículo 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación.</p>
<p>11.artikulua. Egiaztatze modua</p> <p>1. Pertsona edo erakunde interesdunek Udalak emandako inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dute dirulaguntzaren eskabidea.</p> <p>2. Eskabide-inprimakiak, dirulaguntzari buruzko informazio orokorrarekin eta, hala badagokio, arau erregulatzaillean edo ordenantza espezifikoan laburbildutako informazioarekin batera, ondorengo era honetan aurkeztu beharko dira: pertsona fisikoek eskabidea elektronikoki edo fisikoki aurkeztu ahal izango dute eta pertsona juridikoen edo nortasun juridikorik gabeko kolektiboek modu elektronikoa aurkeztu beharko dituzte.</p> <p>3. Eskabide-inprimakian, besteak beste, honako hauek adieraziko dira:</p>	<p>Artículo 11. Forma de acreditación</p> <p>1. Las personas o entidades interesadas deberán presentar la solicitud de subvención en impreso normalizado facilitado por el Ayuntamiento.</p> <p>2. Los impresos de solicitud, junto con la información general de la subvención y la información extractada, en su caso de la norma reguladora u ordenanza específica, deberán de presentarse de la siguiente forma: las personas físicas pueden optar por presentar su solicitud de forma electrónica o física y las personas jurídicas o los colectivos sin personalidad jurídica deberán hacerlo de forma electrónica.</p> <p>3. En el impreso de solicitud se recogerán, entre otros:</p>



<p>a) Erantzukizunpeko adierazpena, beste sail, erakunde, organismo eta abarrei egindako edo, hala badagokio, eman zaizkien dirulaguntza eskaeren berri ematen duena.</p> <p>b) Dirulaguntzak lortzeko debekurik ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena, aplikatzekoa den araudiaren arabera.</p> <p>4. Eskabidearekin batera, oinarri arautzaileetan, ordenantza espezifikoan eta/edo deialdian zehaztutako dokumentazioa eta informazioa aurkeztu beharko da.</p> <p>5. Gipuzkoako Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez, onuradunak eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du organo kudeatzaileari baimena ematea erakunde jaulkitzaileen eskutik zuzenean eskuratzeko haiek eman beharreko ofiziozko ziurtagiriak, DLOren 23.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.</p> <p>Ziurtagiriek eta adierazpenek sei hilabeteko balioaldia izango dute, ematen edo igortzen direnetik zenbatzen hasita.</p> <p>6. Hala ere, betetze hori erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da, baldin eta pertsona edo erakunde onuraduna ez badago adierazpen edo dokumentu horiek aurkeztera behartuta, honako kasu hauetan:</p>	<p>a) La declaración responsable en la que se hagan constar las solicitudes de subvención formuladas ante otros departamentos, instituciones, organismos, etc., o en su caso, de las que estuvieran otorgadas.</p> <p>b) La declaración responsable de no estar incurso/a en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones según lo estipulado por la normativa aplicable.</p> <p>4. La solicitud deberá ir acompañada de la documentación e información determinada en las bases reguladoras, ordenanza específica y/o convocatoria.</p> <p>5. Respecto al cumplimiento de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral de Gipuzkoa y frente a la Seguridad Social, la presentación de la solicitud por parte de la persona beneficiaria conllevará la autorización al órgano gestor para recabar los certificados de oficio a emitir directamente de los organismos emisores de conformidad con lo dispuesto en el artículo 23.3 de la LGS.</p> <p>Los certificados y declaraciones tendrán una validez de seis meses desde la fecha de su expedición o emisión.</p> <p>6. No obstante, se acreditará dicho cumplimiento mediante declaración responsable cuando la persona o entidad beneficiaria no esté sujeta a presentar las declaraciones o</p>
--	--



<p>a) Pertsona edo erakunde onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa, deialdian, 3.000 eurotik gorakoa ez denean.</p> <p>b) Administrazio publikoei eta haien mendeko sektore publikoko organismo, entitate publiko eta fundazioei emandako dirulaguntzak.</p> <p>c) DLOren Erregelamenduaren 24. artikuluan jasotako beste edozein zirkunstantzia gertatzen denean.</p>	<p>documentos a que las mismas van referidas, en los siguientes casos:</p> <p>a) Aquellas subvenciones en las que la cuantía a otorgar a cada persona o entidad beneficiaria no supere en la convocatoria el importe de 3.000 euros.</p> <p>b) Las subvenciones otorgadas a las administraciones públicas, así como a los organismos, entidades públicas y fundaciones del sector público dependientes de aquéllas.</p> <p>c) Cuando concorra cualquiera otra de las circunstancias contempladas en el artículo 24 del Reglamento de la LGS.</p>
<p>7.Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak, eta dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak egunean izateko betekizunak, emakidaren unean ez ezik, betebeharra aitortzeko unean ere egiaztatu beharko dira.</p>	<p>7. Los requisitos de hallarse al corriente en el cumplimiento de obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y de obligaciones por reintegro de subvenciones, deberán acreditarse no sólo en el momento de la concesión, sino también en el momento del reconocimiento de la obligación.</p>
<p>8. Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarrek eskubidea dute Tolosako Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko.</p>	<p>8. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del PAC, la ciudadanía tiene derecho a no aportar los documentos que ya se encuentran en poder del Ayuntamiento de Tolosa.</p>
<p>9. Ondorio horietarako, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren (azaroaren 17koa) 23.3 artikulua arabera, pertsonak edo erakundeak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, adierazita zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, zein</p>	<p>9. A estos efectos, de acuerdo con el artículo 23.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, GS, la persona o entidad deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos, siempre que se haga constar la fecha y el órgano o dependencia en que fueron</p>



<p>organo edo bulegok igorri zituen, eta dagokion prozedura amaitu zenetik 5 urte baino gehiago igaro ez badira.</p>	<p>presentados o, en su caso, emitidos y cuando no hayan transcurrido más de 5 años desde la finalización del procedimiento correspondiente.</p>
<p>10. Era berean, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua aitortzen du herritarrek eskubidea dutela edozein administrazio egindako dokumentuak ez aurkezteko. Hala, Tolosako Udalak zuzenean kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu dokumentu horiek bere datu-baseetan eta administrazio eskuduneari, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez (euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzako plataforma komuna, administrazioen artean datu elektronikoak trukatzeko nodo autonomiko gisa), baldintzak betetzen direla egiaztatze behar den informazioa, eta, bereziki, oinarri arautzaile espezifikoetan adierazitako datuak egiaztatze.</p>	<p>10. A su vez, el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del PAC, reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, de tal forma que el Ayuntamiento de Tolosa podrá consultar o recabar dichos documentos directamente en sus bases de datos y en la administración competente a través del nodo de interoperabilidad NISAE, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para el intercambio de datos electrónicos entre distintas administraciones, la información necesaria para determinar el cumplimiento de las condiciones, y en particular los datos indicados en las bases reguladoras específicas.</p>
<p>11. Eskatzaileek berariaz adierazi ahal izango dute dokumentuak adierazitako moduan egiaztatzearen aurkak daudela. Horrelakoetan, haiek arduratu beharko dute dokumentuak aurkezteaz.</p>	<p>11. Las personas solicitantes podrán mostrar su oposición expresa a la verificación de documentos, en cuyo caso serán ellas mismas las encargadas de su aportación.</p>
<p>12. Salbuespenez, organo eskudunak ezin baditu aurreko apartatuetan aipatutako dokumentuak eskuratu, berriro eskatu ahal izango du dokumentu horiek aurkezteko edo, bestela, egiaztapena beste bitarteko batzuen bidez egiteko eskatuko du, ebazpen-proposamena egin aurretik.</p>	<p>12. Excepcionalmente, si el órgano competente no pudiese recabar los documentos citados en los apartados anteriores, podrá solicitar nuevamente su aportación o, en su defecto, la acreditación por otros medios, con anterioridad a la formulación de la propuesta de resolución.</p>
<p>13. Nolanahi ere, dirulaguntzen oinarriek zehaztuko dituzte bete beharreko</p>	<p>13. En todo caso, serán las bases de las subvenciones las que detallen los</p>



<p>baldintzak, eta bildu beharreko datuak, datuen tratamenduaren xedeari begira, egokiak, beharrezko direnak eta mugatuak izango dira.</p> <p>14. Eskabideak ez baditu betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio zuzen dezala eskabidea 10 eguneko gehieneko epe luzaezinean zuzen dezala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua araberako ebazpena eman ondoren.</p> <p>15. Nolanahi ere, aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du sailak.</p> <p>16. Era berean, interesdunak ere osatu ahal izango du eskabidea, interesekotzat duena aurkeztuta.</p>	<p>requisitos a cumplir, y los datos a recabar serán adecuados, pertinentes y limitados a lo necesario en relación a los fines para los que serán tratados.</p> <p>14. Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en la convocatoria, se requerirá a la persona interesada para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de 10 días, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.</p> <p>15. En todo caso, el departamento podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.</p> <p>16. Al igual que la persona interesada podrá complementar la solicitud por cuanta otra considere de interés.</p>
<p>12. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunen eskubideak eta betebeharrak.</p> <p>1. Pertsona edo entitate onuradunek eskubidea dute eman zaien zenbatekoa dirulaguntzari dagokion deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako baldintzetan kobratzeko. Era berean, ahalmena daukate, deialdiak hala debekatzen ez badu, eta diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea bukatu baino lehen, organo emaileari eskatzeko alda dezala laguntza emateko ebazpena, finkatutako epeak zabaltzeari, emandako zenbatekoa murrizteari edo</p>	<p>Artículo 12. Derechos y obligaciones de las personas o entidades beneficiarias</p> <p>1. Las personas o entidades beneficiarias tienen derecho al cobro de la cantidad concedida en los términos y condiciones que se hayan establecido en la respectiva convocatoria, convenio o resolución de concesión. Asimismo, están facultadas, salvo que la convocatoria lo prohíba, para solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, la modificación de la resolución de concesión en lo concerniente a la ampliación de los plazos fijados, la</p>



<p>jardueran sartzen diren ekintzak aldatzeari dagokienez. Aldaketa horiek baimenduko dira ustekabeko arrazoi batzuek eragindakoak direnean edo jarduera ondo gauzatzeko beharrezkoak direnean, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrengoen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.</p> <p>2. Oinarri arautzaileek, deialdiek, hitzarmenek edo emakida-ebazpenek jasotzen dituzten berariazko obligazioak kontuan hartu gabe, Tolosako Udalaren dirulaguntzen onuradunek bete beharreko obligazio orokorrak honako hauek izango dira:</p> <p>a) Helburua betetzea, proiektua betearaztea, jarduera gauzatea edo dirulaguntza emateko oinarria den portaera hartzea; eta horiek denak, ezarritako epean.</p> <p>b) Dirulaguntza ematen duen organoari edo, kasuan kasu, erakunde laguntzaileari frogatzea betekizun eta baldintzak betetzen direla, baita dirulaguntza eman eta laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartu den jarduera egin dela eta helburua bete dela ere, eta jasotako funtsak dagokien helbururako erabili direla, behar den frogagiri mota epe barruan eta ordenantza honek aurreikusten duen moduan aurkezturik.</p> <p>c) Inbentarioan sar daitezkeen ondasunak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzera bideratutako dirulaguntzak direnean, onuradunak dirulaguntza ematearen helburu zehatzerako erabili beharko ditu ondasunak,</p>	<p>reducción del importe concedido o la alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros.</p> <p>2. Con independencia de las obligaciones específicas que recojan las bases reguladoras, las convocatorias, los convenios o resoluciones de concesión, serán obligaciones generales de las beneficiarias de las subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa las siguientes:</p> <p>a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones en el plazo que se establezca.</p> <p>b) Justificar ante el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones necesarios, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención y la aplicación a su finalidad de los fondos recibidos, presentando en plazo la modalidad justificativa en la forma que se prevé en esta ordenanza.</p> <p>c) Cuando se trate de subvenciones destinadas a la adquisición, construcción, rehabilitación y mejora de bienes inventariables, la beneficiaria deberá destinar los bienes al fin</p>
--	---



<p>bost urtez, erregistro publiko batean inskribatzeko moduko ondasunak direnean, edo bi urtez, gainerako ondasunak direnean.</p> <p>d) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik jasoz gero, organo emaileari edo erakunde laguntzaileari jakinaraztea halakoak jaso direla. Jakinarazpen hori egin behar da, hain zuzen, beste laguntza horien berri izan bezain laster eta, edozein kasutan, jasotako funtsen aplikazioaren justifikazioa baino lehen. Proiektu edo jarduera baterako dirulaguntza bat eskatzen denean eta helburu bererako bateraezina den beste dirulaguntza bat lehenago eman denean, zirkunstantzia hori adierazi behar da bigarren eskabidean. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpenak bere ondorioak, hala badagokio, baldintza honen pean jarri behar dira: onuradunak ukoa aurkeztea, hurrengo atalak aldez aurretik eskuratutako dirulaguntzen inguruan aipatzen duen gisan, bai eta, hala badagokio, jasotako funts publikoak itzultzea. Behin dirulaguntza berria eskuratuz gero, eskuratu bada, onuradunak horren berri emango dio lehen dirulaguntza eman dion entitateari, zeinak aldatu ahal izango baitu dirulaguntza emateko akordioa, araudi erregulatuaz ezarritakoaren arabera. Aldaketa-akordioak ebatzi ahal izango du emandako dirulaguntza osorik edo zati batean galdu egingo dela, eta,</p>	<p>concreto para el que se concedió la subvención, durante un periodo de cinco años, en caso de bienes inscribibles en un registro público, o de dos años para el resto de bienes.</p> <p>d) Comunicar al órgano concedente o a la entidad colaboradora la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos. Cuando se solicite una subvención para un proyecto o actividad y se hubiera concedido otra anterior incompatible para la misma finalidad, se hará constar esta circunstancia en la segunda solicitud. En este supuesto la resolución de concesión deberá, en su caso, condicionar sus efectos a la presentación por parte de la beneficiaria de la renuncia a que se refiere el apartado siguiente en relación con las subvenciones previamente obtenidas, así como en su caso, al reintegro de los fondos públicos que hubiese percibido. Una vez obtenida, en su caso, la nueva subvención la beneficiaria lo comunicará a la entidad que le hubiera otorgado la primera, la cual podrá modificar su acuerdo de concesión, en los términos establecidos en la normativa reguladora. El acuerdo de modificación podrá declarar la pérdida total o parcial del derecho a la subvención concedida, y el</p>
--	---



horren ondorioz, dirua itzuli beharko dela, ordenantza honen **37. eta 40.** artikuluek ezarritakoaren arabera. Modu berean jokatuko da udal administrazioak jakiten duenean pertsona edo entitate onuradun batek eman zaion dirulaguntzarekin batera beste dirulaguntza bateraezin bat edo batzuk jaso dituela behar den ukoa egin gabe.

e) Egiaztatzea, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, egunean dagoela ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Korporazioarenak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak betetzeari dagokionez, ordenantza honen **10. eta 11. artikuluekin bat etorrita.**

f) Organo emaileak edo, hala badagokio, erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztapen ekintzak onartzea, baita kontrol kontrol-organo eskudunek egin dezaketen beste edozein egiaztapen ekintza edo finantza-kontrolak ere, eta aipaturiko egiaztapen-jarduketa horiek gauzatzean eskatzen zaizkien agiri guztiak aurkeztea.

g) Behar bezala ikuskatuta edukitzea kontabilitate liburuak, erregistro tramitatuak eta gainerako agiriak, bat etorrita onuradunari kasu bakoitzean aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta legeria sektorialean ezarritakoarekin, bai eta dirulaguntzaren oinarri-arauetan eskatzen diren kontabilitate-orri eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztapen-

consiguiente reintegro, en su caso, en los términos establecidos en los artículos **37 y 40** de esta ordenanza. En igual sentido se procederá cuando la Administración municipal tenga conocimiento de que una persona o entidad beneficiaria ha percibido otra u otras subvenciones incompatibles con la otorgada sin haber efectuado la correspondiente renuncia.

e) Acreditar, con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la hacienda y de la Corporación y frente a la Seguridad Social, en los términos previstos por **los artículos 10 y 11** de la presente ordenanza.

f) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

g) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial que resulte aplicable a la beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por la regulación de la subvención,



<p>eta kontrol-ahalmenen erabilera egokia bermatuta egon dadin.</p> <p>h) Gordetzea jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.</p> <p>i) Diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsioa edo jarduketaren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartzea, diruz lagundutako xedearentzako egoki direnak, dela forman dela iraupenean; adibidez, Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo haren finantzaketa publikoari buruzko testua sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta beste finantzaketa-iturri batzuekin erabilitako adinako garrantzia duela. Ez da eskatuko baldintza hori betetzeko pertsona fisikoei emandako izaera sozialeko laguntzak baldin badira.</p> <p>j) Egiaztatzea, 30.000 eurotik gorako dirulaguntzatarako eta onuraduna edo erakunde laguntzailea enpresa bat denean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen dituztela.</p> <p>k) Egiaztatzea, enpresa onuradunak diruz lagundu daitezkeen gastuak sektoreko</p>	<p>con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.</p> <p>h) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.</p> <p>i) Adoptar medidas de difusión del carácter público de la financiación del programa, actividad, inversión o actuación subvencionada, adecuadas al objeto subvencionado, tanto en su forma como en su duración, como la inclusión de la imagen institucional del Ayuntamiento de Tolosa o leyendas relativas a su financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o menciones realizadas en medios de comunicación, y con análoga relevancia a la empleada respecto de otras fuentes de financiación. No será exigible esta obligación cuando se trate de ayudas de carácter social a personas físicas.</p> <p>j) Acreditar, para subvenciones superiores a 30.000 euros y cuando la persona beneficiario o entidad colaboradora sea una empresa, el cumplimiento de los plazos de pago previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.</p>
--	---



araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu dituela, edo, halakorik ezean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoetan.

l) Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu — euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

m) Hizkuntza-normalizaziorako helburuei jarraikiz, euskara sustatzeko irizpideak jarriko ditu Udalak, eta haiek bete beharko ditu onuradunak diruz lagundutako jarduera gauzatzean. Irizpideak zehazteko oinarri hartuko diren printzipioak azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan zehaztutakoak dira, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboari buruzkoan, hain zuzen.

k) Acreditar que la empresa beneficiaria ha abonado los gastos subvencionables en los plazos de pago previstos en la normativa sectorial aplicable o, en su defecto, en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

l) La entidad beneficiaria deberá redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales, con preferencia al euskera, los escritos, anuncios, notas y demás comunicaciones que publique en la actividad subvencionada, así como la publicidad, tanto oral como escrita. Asimismo, los mensajes emitidos por megafonía en actos concretos deberán transmitirse en euskera o en las dos lenguas oficiales. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse en el momento de la justificación de la realización de la actividad subvencionada.

m) En atención a los objetivos de normalización lingüística, el Ayuntamiento establecerá y deberá cumplir los criterios de promoción del euskera en la ejecución de la actividad subvencionada por la persona beneficiaria. Los principios que servirán de base para la determinación de los criterios son los establecidos en el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas



	oficiales en las entidades locales de Euskadi.
<p>13. artikulua. Entitate laguntzaileak.</p> <p>1. Honako hauek izango dira erakunde laguntzaileak: dirulaguntzarekin loturiko ondorio guztietarako Tolosako Udalaren izenean eta beren kontura arituz, pertsona onuradunei funts publikoak eman eta banatzen dizkietenak, edota jasotako funtsak aldez aurretik eman eta banatu gabe dirulaguntzaren kudeaketan laguntzaile dihardutenak. Funts horiek ez dira inola ere erakunde horien ondarearen parte izango.</p> <p>2. Ezingo entitate laguntzaile izan DLOren 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritako zirkunstantziaren batean daudenak, eta egiaztatu beharko dute ez daudela zirkunstantzia horietan, ordenantza honetan pertsona edo entitate onuradunentzat aurreikusten den eran.</p> <p>3. Entitatea bat entitate laguntzaitzat hartua izateko kaudimen eta eraginkortasunari buruzko baldintzak izango dira entitate horien hautaketa-prozesuan ezartzen direnak. Erakunde laguntzaileak zuzenbide pribatuaren mendeko pertsonak direnean, publikotasun, konkurrentzia, berdintasun eta ez diskriminatzearen printzipioen arabeko prozedura baten bitartez hautatuko dira aurrez, eta hitzarmen baten bidez formalizatuko da lankidetzak.</p> <p>4. Baldin eta, lankidetzaren helburua dela-eta, kontratu publikoen gaineko legeria osoki aplikatzekoa bada, entitate laguntzaileen hautaketa egingo da, bat etorrita legeria horretan agindutakoarekin. Kasu honetan,</p>	<p>Artículo 13. Entidades colaboradoras</p> <p>1. Será entidad colaboradora aquella que, actuando en nombre y por cuenta del Ayuntamiento de Tolosa entregue y distribuya los fondos públicos a las personas o entidades beneficiarias, o colabore en la gestión de la subvención sin que se produzca la previa entrega y distribución de los fondos recibidos. Estos fondos, en ningún caso, se considerarán integrantes de su patrimonio.</p> <p>2. No podrán obtener la condición de entidad colaboradora aquellas entidades que estén incursoas en alguna de las circunstancias establecidas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la LGS, debiendo acreditar que no están incursoas en las mismas, en la forma que se establece en esta ordenanza para las personas o entidades beneficiarias.</p> <p>3. Las condiciones de solvencia y eficacia para poder ser considerada entidad colaboradora serán las que se establezcan en el procedimiento de selección de las mismas. En el supuesto de que las entidades colaboradoras sean personas sujetas a derecho privado se seleccionarán previamente mediante un procedimiento sometido a los principios de publicidad, concurrencia, igualdad y no discriminación y la colaboración se formalizará mediante un convenio.</p> <p>4. Cuando, en virtud del objeto de la colaboración, sea de aplicación plena la legislación de contratos públicos, la selección de las entidades colaboradoras se realizará conforme a los preceptos establecidos en dicha ley. En este</p>



<p>kontratuak DLOren 16. artikuluan aurreikusitako gutxieneko edukia jasoko du, bai eta kontratu publikoak arautzeko araudiaren arabera nahitaezkoa dena ere.</p> <p>5. Entitate laguntzaile izatearen akreditazioa eskuratzeko, beharrezkoa izango da, Administrazio Publikoa ez denean, nahikoa den berme bat eratzea entitate laguntzaile gisa aurrera eramandako jarduketetatik etor litezkeen kalteak estaltzeko, DLOren Araudiaren 44. artikuluan eta ordenantza honen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.</p> <p>6. Organo administratibo emailearen eta erakunde laguntzailearen arteko lankidetzahitzarmen bat egingo da, eta hitzarmen horretan arautuko dira erakunde laguntzaileak bere gain harturiko baldintza eta betebeharrak. Hitzarmen hori gehienez lau urteko epean egongo da indarrean, nahiz eta epea, luzapenen bidez, gehienez sei urteraino luzatzea egongo den. Lankidetzahitzarmenaren testuak zerbitzu juridikoen txostena izan beharko du.</p> <p>7. Tolosako Udalak entitate laguntzaile gisa jarduten duenean, Estatuko Administrazio Orokorrak, Eusko Jaurjaritzarenak, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, edo administrazio horiei loturik edo beren mende dauden erakunde publikoek Tolosako Udalarekin egingo dituzte behar diren hitzarmenak, zeinetan zehaztuko baitira zer baldintza bete behar diren funtsak banatu eta emateko, eta zein diren kontuak emateko eta justifikatzeko irizpideak. Era berean, eta berdin jokatu da Estatuko</p>	<p>supuesto, el contrato incluirá necesariamente el contenido mínimo previsto en el artículo 16 de la LGS, así como el que resulte preceptivo de acuerdo con la normativa reguladora de los contratos públicos.</p> <p>5. Para obtener la acreditación de entidad colaboradora, cuando no tenga la consideración de Administración Pública, será necesaria la constitución de una garantía suficiente para cubrir los perjuicios que pudieran derivarse de las actuaciones que desarrolle en su condición de entidad colaboradora, en los términos dispuestos en los artículos 44 del Reglamento de la LGS y 17 de esta ordenanza.</p> <p>6. Se formalizará un convenio de colaboración entre el órgano administrativo concedente y la entidad colaboradora en el que se regularán las condiciones y obligaciones asumidas por ésta, con un límite temporal de vigencia de cuatro años, sin perjuicio de que a través de prórrogas pueda extenderse hasta un máximo de seis. El texto del convenio de colaboración deberá contar con el informe los servicios jurídicos.</p> <p>7. Cuando el Ayuntamiento de Tolosa actúe como entidad colaboradora, la Administración General del Estado, la de Gobierno Vasco, la de la Diputación Foral de Gipuzkoa o los organismos públicos vinculados o dependientes de las mismas suscribirán con aquél los correspondientes convenios en los que se determinen los requisitos para la distribución y entrega de los fondos, los criterios de justificación y de rendición de cuentas. De igual forma, y en los mismos términos, se procederá cuando la</p>
--	--



<p>Administrazio Orokorrak, Eusko Jaurlaritzarenak, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, edo administrazio horiei loturik edo beren mende dauden erakunde publikoek entitate laguntzaile gisa jarduten dutenean Tolosako Udalak emandako dirulaguntzei dagokienez.</p> <p>8. 11. artikuluaren 1 atalean jasotako arauak aplikatuko zaizkie entitate laguntzaileei.</p>	<p>Administración General del Estado, la de Gobierno Vasco, la de la Diputación Foral de Gipuzkoa, o los organismos públicos vinculados o dependientes de las mismas actúen como entidades colaboradoras respecto de las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Tolosa.</p> <p>8. La regulación contenida en el apartado 1 del artículo 11 será de aplicación a las entidades colaboradoras.</p>
<p>14. artikulua. <i>Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.</i></p> <p>1. Oro har, pertsona edo entitate onuradunak aurkeztu eta diruz lagundu beharreko proiektu edo jardueraren aurrekontua, edo gerora egindako aldaketak, erreferentziazko izango dira dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko, eta zenbateko hori kalkulatzeko egongo da proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje moduan. Kasu horretan, Tolosako Udalak egin lezakeen gehiegizko finantziazioa kalkulatzeko, ekarpen horrek kostu osoa portzentajea hartuko da erreferentzia gisa, bat etorrita dirulaguntza erregulatzeko araudiarekin eta ordenantza, deialdi, hitzarmen edo emakida-ebazpen espezifikoaren baldintzekin. Hala ere, dirulaguntzaren izaeraren, helburuen edo lortu nahi dituen xede sozialen arabera, ekarpen publikoa izan daiteke zenbateko zehatz bat, kostu osoaren portzentaje edo zati bati erreferentziarik gabea. Kasu horretan, ulertuko da diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia pertsona edo entitateak jarri beharko duela, eta finantzaketa publikoa, halakorik bada,</p>	<p>Artículo 14. <i>Financiación de las actividades subvencionadas</i></p> <p>1. Con carácter general, el presupuesto del proyecto o de la actividad a subvencionar presentado por la persona o entidad solicitante, o sus modificaciones posteriores, servirá de referencia para la determinación final del importe de la subvención, pudiendo calcularse éste como un porcentaje del coste final del proyecto o actividad. En este caso, el eventual exceso de financiación por parte del Ayuntamiento de Tolosa se calculará tomando como referencia la proporción que alcance dicha aportación respecto del coste total, de conformidad con la normativa reguladora de la subvención y las condiciones de la ordenanza específica, convocatoria, convenio o resolución de concesión. No obstante, en función de la naturaleza y objetivos o fines sociales perseguidos por la subvención, la aportación pública podrá consistir en un importe cierto –sin referencia a un porcentaje o fracción del coste total–, en cuyo caso se entenderá que queda de cuenta de la persona o entidad beneficiaria la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la</p>



<p>itzuli egin beharko da jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.</p> <p>2. Pertsona edo entitate onuradunaren baliabide propioekin finantzatu da diruz lagundutako jarduera, dagokion zenbateko edo proportzioan, baldin eta hala xedatuta badago dagokion oinarri arautzaileetan, deialdian, emakidabazpenean edo hitzarmenean.</p> <p>3. Oro har, eta oinarri arautzailean, deialdian, hitzarmenean edo emakidabazpenean xedatzen denari kalterik egin gabe, ordenantza honekin bat etorrira ematen diren dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe beste dirulaguntza horien araudiak horri buruz agindu dezakeenari. Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketakasuetan honako baldintza hauek bete behar dira:</p> <p>3.1. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua. Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat,</p>	<p>actividad subvencionada, debiendo ser reintegrada, en su caso, la financiación pública por el importe en que la misma exceda del coste total de dicha actividad.</p> <p>2. La actividad subvencionada se financiará con recursos propios de la persona o entidad Beneficiaria en el importe o proporción correspondiente cuando así se establezca en la respectiva base reguladora, convocatoria, resolución de concesión o convenio.</p> <p>3. Con carácter general, y sin perjuicio de lo que se señale en la base reguladora, en la convocatoria, convenio o resolución de concesión, las subvenciones que se concedan con arreglo esta ordenanza serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes. Los supuestos de cofinanciación que puedan registrarse se someten a los requisitos siguientes:</p> <p>3.1. En ningún caso el importe de la subvención concedida podrá superar, en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, el coste de los proyectos o actividades subvencionadas. Para la comprobación de esta limitación, se habrá de justificar la totalidad del gasto realizado y la cuenta justificativa habrá de contener una relación detallada de los otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad</p>
---	--



<p>zenbatekoak eta haien jatorria adierazita daudela.</p> <p>3.2. Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan. Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, eskatuko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.</p> <p>3.3. Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea, eta ordenantza honetako 12.2 artikuluko d) letran aurreikusitakoaren arabera jokatu da.</p> <p>4. Tolosako Udalaren esparruan ezin dira eman jarduera bera finantzatzen bideratutako bi dirulaguntza edo gehiago aurrekontu-ekitaldi beraren kargura, ez eta entitate baten jarduketa osorik finantzatzen bideratutako dirulaguntza bat eta entitate beraren jarduketa jakin bat finantzatzeko beste bat ere. Pertsona edo entitate onuradun batek Tolosako Udalaren kargurako dirulaguntza bat lortuta daukala eskatzen baldin badu ekitaldi berean beste dirulaguntza bat, berak edo beste erakunde batek kudeatuta, Kontuhartzaitzak, dirulaguntza emateko proposamenaren</p>	<p>subvencionada, con indicación de los importes y su procedencia.</p> <p>3.2. Si se produjera un exceso de financiación respecto del coste del proyecto o actividad, la beneficiaria deberá reintegrarlo, junto con los intereses de demora, uniendo las cartas de pago a la correspondiente justificación. El reintegro del exceso se hará a favor de las entidades concedentes en proporción a las subvenciones concedidas por cada una de ellas. No obstante, cuando sea el Ayuntamiento de Tolosa el que advierta el exceso de financiación, exigirá el reintegro por el Importe total del exceso, hasta el límite de la subvención otorgada por el mismo.</p> <p>3.3. La circunstancia de que las subvenciones sean incompatibles no impedirá la solicitud de ambas, pero sí su disfrute simultáneo, procediéndose de conformidad con lo previsto en la letra d) del artículo 12.2 de la presente ordenanza.</p> <p>4. En el ámbito del Ayuntamiento de Tolosa no podrán otorgarse dos o más subvenciones destinadas a financiar la misma actuación con cargo al mismo ejercicio presupuestario ni una subvención para financiar globalmente la actuación de una entidad y otra para una actuación determinada de la misma entidad. En los supuestos en que una persona o entidad beneficiaria ya hubiera obtenido una subvención con cargo al Ayuntamiento de Tolosa y solicite otra durante el mismo ejercicio, gestionada por la misma o por distinto Organismo, la Intervención antes de proceder a la fiscalización de la propuesta de</p>
---	--



<p>fiskalizazioari ekin baino lehen, eskaerak eragindako kudeaketa-zentroei emango die horren berri, horiek bidezkoa den ala ez erabaki dezaten eta, baldin eta proposamenari formulatutako terminoetan eusten bazaio, Tokiko Gobernu Batzarraren adostasuna eskura dezaten, Alkatetza duenak proposatuta.</p>	<p>concesión, lo comunicará a los centros gestores afectados para que valoren su oportunidad y, en caso de mantener la propuesta en los términos ya formulados, habrán de recabar la conformidad de la Junta de Gobierno Local, a propuesta de quien ostente la alcaldía.</p>
<p>15. artikulua. <i>Dirulaguntzak emateko ebazpenaren aldaketa.</i></p> <p>1. Dirulaguntzarekin batera 14. artikuluan ezarritako kasu eta baldintzetatik kanpoko beste ekarpenik jasoz gero, dirulaguntza emateko ebazpena edo akordioa aldatuko da.</p> <p>2. Dirulaguntza emateko ebazpena edo akordioa aldatu ahal izango da pertsona edo entitate onuradunak hala eskatzen badu –Ordenantza honetako 11.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera–, ustekabean gertatutako zirkunstantziek ekarri badute dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzea, betiere, zirkunstantzia horiek emandako dirulaguntzaren izaera edo helburuak desitxuratzen ez badituzte, aldagetak beste pertsona edo entitate bazuen eskubideei kalterik egiten ez badie eta eskabidea jarduera gauzatzeko epea amaitu aurretik aurkezten bada.</p> <p>3. Dirulaguntza emateko ebazpena eman eta gero, birdoitze bat egin ahal izango da lagundutako proiektu edo jardueraren gastuen banaketan, dirulaguntza eman duen organoak horretarako baimena eman ondoren, baimen horrek kalterik egiten ez badie beste pertsona edo entitate bazuen eskubideei.</p>	<p>Artículo 15. <i>Modificación de la resolución de concesión</i></p> <p>1. La obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos y en las condiciones establecidas en el artículo 14 dará lugar a la modificación de la resolución o acuerdo de concesión.</p> <p>2. La resolución o acuerdo de concesión se podrá modificar a solicitud de la persona o entidad beneficiaria –según lo previsto en el artículo 11.1 de esta Ordenanza–, cuando circunstancias sobrevenidas e imprevisibles supongan una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que las mismas no desvirtúen la naturaleza u objetivos de la subvención concedida, que la modificación no dañe derechos de terceras personas o entidades y que la solicitud se presente antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad.</p> <p>3. Una vez adoptada la resolución de la concesión, podrá realizarse un reajuste en la distribución de los gastos del proyecto o actividad subvencionada, previa autorización del órgano concedente y siempre que la autorización no perjudique los derechos de terceras personas o entidades.</p>



<p>16. artikulua. Udalaren dirulaguntza jardueraren publikotasuna.</p> <p>1. Tolosako Udalak diruz laguntzeko jardueraren gaineko informazioa bidaliko dute Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera, DLOren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.</p> <p>2. Era berean, Tolosako Udalak emandako dirulaguntzak Tolosako Udalaren webgunean argitaratuko dira, zehatz adierazirik zein diren dirulaguntza horien zenbateko, helburu edo xedea eta onuradunak, kalterik egin gabe oinarri arautzaileak, deialdiak, dirulaguntza emateko ebazpenak edo hitzarmenak, kasuan kasu, adierazten duen beste edozein hedabidetan argitaratzeari. Hori horrela, informazioak bereziki babestutako datuak badauzka, publikitatea egingo da, bakar-bakarrik, datu horiek disoziatu ondoren.</p> <p>3. Udalaren Egoitza Elektronikoak eskainiko du dirulaguntzak eta sariak emateko prozeduraren inguruko informazioa, eta horren bidez alde zuzen jakin ahal izango da, batetik, zein diren prozedura horiek, eta, bestetik, zein diren garapenaren fase nagusiak. Zehazki, egoitza horretan honako eduki hauek jasoko dira beti:</p> <p>a) Dirulaguntzaren gaineko informazio orokorra, dirulaguntzari dagokion ordenantzaren edo arau erregulatzailearen informazio laburtua duela, bai eta ordenantza edo arau horretarako lotura ere.</p>	<p>Artículo 16. <i>Publicidad de la actividad subvención al municipal</i></p> <p>1. El Ayuntamiento de Tolosa remitirá a la Base de Datos Nacional de Subvenciones información sobre la actividad subvencional municipal en los términos establecidos en el artículo 20 de la LGS.</p> <p>2. Asimismo, las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Tolosa se publicarán en la página web municipal del Ayuntamiento de Tolosa, con indicación detallada de su importe, objetivo o finalidad y personas o entidades beneficiarias, sin perjuicio de su publicación en cualquier otro medio que, en su caso, señale la base reguladora, convocatoria, el acuerdo de concesión o el convenio. A este respecto, cuando la información contuviera datos especialmente protegidos, la publicidad sólo se llevará a cabo previa disociación de los mismos.</p> <p>3. La Sede Electrónica del Ayuntamiento incluirá información relativa a los procedimientos de concesión de subvenciones y premios que permita tanto el conocimiento previo de dichos procedimientos como, al menos, las fases principales de su desarrollo. En particular, se incluirá en todo caso el contenido siguiente:</p> <p>a) Información general sobre la subvención, con información extractada de su ordenanza o norma reguladora, así como el enlace a la misma.</p>
---	--



<p>b) Eskabide-orriak eta, hala dagokionean, interesdunek erabili beharreko eranskinak.</p> <p>c) Prozeduraren ebazpena, salbu eta legez justifikatuta badago adjudikaziodunaren datuen publikotasuna alde batera uztea.</p> <p>4. Pertsona edo entitate onuradunek ageriko egin behar dituzte –kalterik egin gabe dirulaguntza jasotzen duten programa, jarduera, inbertsio edo ekintza guztien finantzaketaren publikotasuna (ordenantza honetako 12.i) artikuluan ezarritakoaren arabera) zabaldu beharri– jasotako dirulaguntzak eta laguntzak, Gardentasunari, Informazio publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko estatuko eta erkidegoko legeriak agindutako baldintza eta terminoetan. Irabazi-asmorik gabeko erakundeek Gardentasunari, Informazio publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jasotako aurreikuspena erabiltzen badute, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak balio izango du bitarteko elektronikoko gisa, publikotasun-eginbeharrak betetzeko.</p>	<p>b) Los impresos de solicitud, así como, en su caso, anexos que se deban utilizar por las personas interesadas.</p> <p>c) La resolución del procedimiento, salvo en los casos en que legalmente esté justificada la exclusión de la publicidad de los datos de la adjudicataria.</p> <p>4. Las personas o entidades beneficiarias, sin perjuicio de su deber de difundir el carácter público de la financiación de sus programas, actividades, inversiones o actuaciones – en los términos establecidos en el artículo 12.i) de esta ordenanza– deberán dar publicidad a las subvenciones y ayudas percibidas en los términos y condiciones establecidos en la legislación estatal y autonómica de Transparencia, Acceso a la información pública y Buen Gobierno. En el caso de que las entidades sin ánimo de lucro hagan uso de la previsión contenida en el artículo 5.4 de la Ley 19/2013 de Transparencia, Acceso a la información pública y Buen Gobierno, la Base de Datos Nacional de Subvenciones servirá de medio electrónico para el cumplimiento de las obligaciones de publicidad.</p>
<p>17. artikulua. Bermeen araubide orokorra.</p> <p>1. Tolosako Udalak emandako dirulaguntzei aplikatuko zaien bermeen araubide orokorra izango da DLOren 42.etik 54.era bitarteko artikuluetan eta ordenantza honetan xedatutakoa.</p> <p>2. Ezinbestekoa izango da berme bat eratzea:</p>	<p>Artículo 17. Régimen general de garantías</p> <p>1. El régimen general de garantías aplicable a las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Tolosa será el establecido en los artículos 42 a 54 del Reglamento de la LGS y en la presente ordenanza.</p>



<p>a) Entitate laguntzaileak hautatzeko prozeduretan, non eta entitate horiek ez diren Tolosako Udalaren erakundeak.</p> <p>b) Pertsona edo entitate onuradunek edo entitate laguntzaileek haien gain hartutako konpromisoak beteko direla ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen bada, eta oinarri arautzailean, deialdian, emateko ebazpenean edo hitzarmenean hala aurreikusita badago.</p> <p>3. Ordainketa aurreratuen kasuetan edo, halakorik badago, konturako ordainketen kasuetan, bermeak eratuko dira ordainketa horien zenbatekoarekin, gehi oinarri arautzaileak, deialdiak, emateko ebazpenak edo hitzarmenak agintzen duen portzentajea, zeina ez baita inoiz 100eko 20 baino handiagoa izango, eta bermeak estali beharko du ordainketa aurreratuaren zenbatekoa edo, konturako ordainketen kasuan, zenbateko hori gehi sor litezkeen berandutze-intereszen zenbateko aintzatetsia.</p> <p>4. Dirulaguntzen helburua ondasun higiezinak osorik edo zati batean finantzatzea denean, deialdiek exijitu ahal izango dituzte dirulaguntza emateko prozeduran aurreikusitako denboran ondasun higiezin horiek beren helbururako bideratuko direla ziurtatzeko bermeak. Berme horiek hartu ahal izango dituzte, konturako ordainketen edo ordainketa aurreratuen bermeetarako aurreikusitako moduez aparte, hipoteka edo bahien modua, kalterik egin gabe finantzatutako ondasunak dirulaguntzaren xede zehatzerako erabiltzeko betebeharra dagokion erregistroetan nahitaez inskribatzeari.</p>	<p>2. Será obligatoria la constitución de garantía:</p> <p>a) En los procedimientos de selección de entidades colaboradoras, a no ser que se trate de organismos pertenecientes al Ayuntamiento de Tolosa.</p> <p>b) Cuando se considere necesario para asegurar el cumplimiento de los compromisos asumidos por las personas o entidades beneficiarias o las entidades colaboradoras, y así esté previsto en la base reguladora, convocatoria, el acuerdo de concesión o el convenio.</p> <p>3. En los supuestos de pagos anticipados o, en su caso, de pagos a cuenta, las garantías se constituirán por el importe de los mismos incrementado en el porcentaje que establezca la base reguladora, convocatoria, acuerdo de concesión o convenio, que no podrá superar un 20 por 100, debiendo cubrir el importe del pago anticipado o, en su caso del pago a cuenta, más el importe estimado de los intereses de demora que pudieran generarse.</p> <p>4. Cuando las subvenciones tengan por objeto la financiación total o parcial de bienes inmuebles, las convocatorias podrán exigir garantías de que los mismos se aplican a su destino durante el tiempo previsto en la resolución de concesión. Dichas garantías podrán adoptar, además de las modalidades previstas para las garantías de pagos a cuenta o anticipados, las formas de hipoteca o prenda, sin perjuicio de la preceptiva inscripción en los registros correspondientes de la obligación de</p>
--	--



Berme horiek nahitaez eratu behar dira onuraduna entitate pribatu bat denean.	destinar los bienes financiados al fin concreto para el que se concedió la subvención. La constitución de estas garantías será obligatoria cuando la beneficiaria sea una entidad privada.
<u>II. KAPITULUA. DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA</u>	<u>CAPÍTULO II. PROCEDIMIENTOS DE CONCESIÓN</u>
<p>18. artikulua. <i>Dirulaguntzak emateko prozedurak.</i></p> <p>1. Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka izango da. Prozedura horretan aurkezturiko eskabideen alderaketa egin behar da haien hurrenkera ezartzeko, oinarri arautzailean aldez aurretik zehaztutako balorazio irizpideen arabera, dirulaguntzak baloraziorik altuena lortu duten eskabideei eman dakizkien, kreditu baliagarriaren barruan eta deialdian finkaturiko mugak errespetatuz. Hala eta guztiz ere, ez da beharrezkoa izango lehentasun-ordena bat finkatzea baldin eta deialdian jasotako kreditua nahikoa bada, aurkeztutako epea bukatutakoan, ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskabide guztiei aurre egiteko.</p> <p>2. Dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:</p> <p>a) Tolosako Udalaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita daudenak, dirulaguntza emateko hitzarmen edo akordioetan aurreikusitakoaren arabera.</p> <p>b) Ematea bera edo zenbatekoa lege mailako arau batek ezartzen dieten dirulaguntzak, halakoak</p>	<p>Artículo 18. <i>Procedimientos de concesión</i></p> <p>1. El procedimiento ordinario de concesión será el de concurrencia competitiva. En este procedimiento se debe proceder a la comparación de las solicitudes presentadas al objeto de establecer una prelación entre las mismas, de acuerdo con los criterios de valoración previamente fijados en la base reguladora, de manera que se concedan, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, a aquellas que hayan obtenido mayor valoración. No obstante, no será necesario fijar un orden de prelación en el caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente para atender, una vez finalizado el plazo de presentación, todas las solicitudes que reúnan los requisitos establecidos.</p> <p>2. Podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones:</p> <p>a) Las previstas nominativamente en el Presupuesto General del Ayuntamiento de Tolosa, en los términos recogidos en los convenios o acuerdos de concesión.</p> <p>b) Aquellas cuyo otorgamiento o cuantía venga impuesto por una</p>



<p>emateko laguntza bakoitzari buruzko arau berariazkoei jarraituz aplikatu behar den prozedura baliatuko baita.</p> <p>c) Salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiazatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak dituzten dirulaguntzak.</p> <p>3. Ezin daiteke eman deialdian zehaztutako kopurua gainditzen duen dirulaguntzarik, ezta aurreikusitako aurrekontu egozpeneko urteko mugak gainditu ere. Aurrekontu nahikorik ez egoteagatik erantzuten ez diren eskabideak atzera botako dira, kalterik egin gabe ebazpenaren testuan beren baremazioa zehazteari, hala aurreikusita baitago ordenantza honetako 21.2 artikuluan. Deialdietan ezarri ahal izango da behin betiko ezezkoa jasotako eskabideek lehentasuna izatea hurrena egiten den deialdian.</p>	<p>norma de rango legal, que seguirán el procedimiento de concesión que les resulte de aplicación de acuerdo con su propia normativa.</p> <p>c) Con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.</p> <p>3. No podrán otorgarse subvenciones por cuantía superior a la que se determine en la convocatoria, ni superar los límites anuales de imputación presupuestaria previstos. Aquellas solicitudes que no se atiendan por insuficiencia presupuestaria serán desestimadas, sin perjuicio de detallarse su baremación en el texto de la resolución a los efectos de lo prevenido en el artículo 21.2 de esta ordenanza. En la convocatoria podrá establecerse que las solicitudes definitivamente denegadas por falta de crédito tendrán prioridad en la siguiente convocatoria que se realice.</p>
<p>1. ATALA. DIRULAGUNTZA NORGEHIAGOKAKO ERREGIMENEAN EMATEA</p>	<p>SECCIÓN 1ª. CONCESIÓN EN RÉGIMEN DE CONCURRENCIA COMPETITIVA</p>
<p>19. artikulua. Prozeduraren hasiera</p> <p>1. Dirulaguntzak norgehiagoka emateko prozedura ofizioz hasiko da beti, oinarri arautzaileetan zehaztutako organo eskudunak onarturiko deialdiaren bitartez, eta deialdian garatuko da deitutako dirulaguntzak emateko prozedura, bat etorrira ordenantza honekin, DLOren I. Tituluko II. Kapitularekin eta DLO garatzeko</p>	<p>Artículo 19. Iniciación del procedimiento</p> <p>1. El procedimiento para la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva se iniciará siempre de oficio mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente determinado en las bases reguladoras, que desarrollará el procedimiento para la concesión de las subvenciones convocadas de</p>



<p>Araudiarekin eta administrazio-prozedura erkidea arautzen duen oinarriko legeriarekin, bai eta aplikagarri den oinarri arautzaileetan araututakoarekin ere.</p> <p>2. Dirulaguntzen deialdiak denbora nahikoarekin argitaratu beharko dira pertsona edo entitate onuradunak behar adinako denbora eduki dezan jarduera eraginkortasunez garatzeko eta ondorengo justifikazioa egiteko. Beharrezkoa bada, aurreko aurrekontu-ekitaldian emango zaio hasiera espedienteari, DLOren Araudiaren 56. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrita.</p> <p>3. Dirulaguntza norgehiagokako erregimenean emateko prozedura egin ahal izango da deialdi eta hautatze-prozedura bakarren bitartez edo, bestela, urtean zeharreko hautatze-prozedura batzuk dituen deialdi ireki baten bitartez, DLOren Araudiaren 59. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrira, dagokion deialdian zehaztutakoaren arabera. Aldez aurretiko tramitazioaren edo urte anitzeko dirulaguntzen erregimenari jarraitzen dioten deialdietan, DLOren Araudiaren 56. eta 57. artikuluetan aurreikusitako xedapenak aplikatuko dira.</p> <p>4. Deialdiak honako eduki hau izango du ezinbestean:</p> <p>a) Oinarri arautzaileak argitaratuta dauden aldizkari ofiziala adieraztea, horiek deialdiarekin</p>	<p>conformidad con la presente Ordenanza, el Capítulo II del Título I de la LGS y de su Reglamento de desarrollo y los principios de la legislación básica reguladora del procedimiento administrativo común, así como en lo regulado en las bases reguladoras que sea de aplicación.</p> <p>2. Las convocatorias de subvenciones habrán de publicarse con la antelación suficiente para que la persona o entidad beneficiaria pueda disponer del tiempo necesario para el desarrollo eficiente de la actividad y subsiguiente justificación, iniciándose la tramitación del expediente si fuera necesario en el ejercicio presupuestario anterior, de conformidad con lo previsto en el artículo 56 del Reglamento de la LGS.</p> <p>3. El procedimiento de concesión de la subvención en régimen de concurrencia competitiva podrá hacerse bien mediante convocatoria y procedimiento selectivo únicos, o bien mediante una convocatoria abierta con varios procedimientos selectivos a lo largo del año con arreglo a lo previsto en el artículo 59 del Reglamento de la LGS, según se especifique en la correspondiente convocatoria. En las convocatorias que sigan el régimen de tramitación anticipada o de subvenciones plurianuales, se aplicarán las disposiciones previstas en los artículos 56 y 57 del Reglamento de la LGS.</p> <p>4. La convocatoria tendrá necesariamente el siguiente contenido:</p> <p>a) Indicación del diario oficial en el que están publicadas las bases reguladoras, salvo que estas se</p>
---	--



<p>batera onartu eta argitaratzen direnean izan ezik.</p> <p>b) Dirulaguntza egozteko aurrekontu kredituak eta deialdiko dirulaguntzen gehienezko zenbateko osoa zein diren, kreditu baliagarrien barruan, edo, halakorik zehaztu ezean, kalkulatzeko den zenbatekoa.</p> <p>c) Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua zein diren.</p> <p>d) Adieraziko da dirulaguntza norgehiagokako erregimenean ematen dela</p> <p>e) Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta haiek egiaztatze modua.</p> <p>f) Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.</p> <p>g) Balorazio-batzordearen osaketa.</p> <p>h) Eskabideak aurkezteko epea eta tokia. Epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, deialdian epe hori baino luzeago bat jartzen ez bada.</p> <p>i) Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiri eta informazioak.</p> <p>j) Ebazpena eman eta jakinarazteko epeak, baita argitaratzeko moduak ere.</p> <p>k) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak, 5. atalean</p>	<p>aprueben y publiquen junto con la convotaria.</p> <p>b) Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones convocadas dentro de los créditos disponibles o, en su defecto, cuantía estimada de las subvenciones.</p> <p>c) Objeto, condiciones y finalidad de la concesión de la subvención.</p> <p>d) Expresión de que la concesión se efectúa en régimen de concurrencia competitiva.</p> <p>e) Requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.</p> <p>f) Documentación interoperable y verificable.</p> <p>g) Composición de la comisión de valoración.</p> <p>h) Plazo y lugar de presentación de solicitudes. El plazo será de 20 días naturales a partir del siguiente al de la publicación de la convocatoria, salvo que en la misma se fije uno superior.</p> <p>i) Documentos e informaciones que deben acompañarse a la solicitud.</p> <p>j) Plazos de resolución y de notificación, así como los medios de publicación.</p> <p>k) Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención de entre los detallados en el apartado</p>
---	---



<p>zehaztutakoen artetik, eta, bere kasuan, irizpide horien haztapena.</p> <p>l) Hala badagokio, eskabidea berriro egiteko aukera, DLOren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.</p> <p>m) Adieraziko da, hala badagokio, dirulaguntza emateko ebazpenak jaso ahal izango duela onuradun izateko baldintzak beteta ere deialdian finkatutako kredituaren gehienezko zenbatekoa gainditzeagatik onartu ez diren deialdien zerrenda ordenatu bat, aditzera emanik deialdi horietako bati emandako puntuazioa eta, hala badagokio, hurrengo deialdian lehentasuna izateko aukera dutela edo, dirulaguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek eskatutako zenbatekoen batura deialdiaren helburuko zenbatekoa baino handiagoa denean, zenbateko hori onuradunen artean hainbanatu dadila aurreko atalen arabera doitutako proiektuen aurrekontuen edo onartutako programen proportzioan, betiere dirulaguntzaren baldintzak, helburu eta xedea aldatzen ez badira. Hala eta guztiz ere, onuradun edo proiektu bakoitzak jaso beharreko diru-kopurua nahikoa ez bada dirulaguntzak eraginkorrak izateko, ez da hainbanaketa aplikatuko.</p> <p>n) Hala badagokio, ordenantza honetan izaera orokorrez</p>	<p>5 y, en su caso, ponderación de los mismos.</p> <p>l) En su caso, posibilidad de reformulación de solicitudes de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 la LGS.</p> <p>m) Indicación, en su caso, de que la resolución de concesión podrá incluir una relación ordenada de todas las solicitudes que, cumpliendo con las condiciones para adquirir la condición de beneficiario/a, no hayan sido estimadas por rebasarse la cuantía máxima del crédito fijado en la convocatoria, con indicación de la puntuación otorgada a cada una de ellas y en su caso, posibilidad de que tengan prioridad en la siguiente convocatoria o que, en el caso de que la suma de los importes solicitados por quienes reúnan los requisitos para acceder a las ayudas sea superior al importe objeto de la convocatoria, dicho importe se prorratee entre las personas beneficiarias en proporción a los presupuestos ajustados de los proyectos conforme al apartado anterior o a los programas aceptados, siempre que no se alteren las condiciones, objeto y finalidad de la subvención. No obstante, si la cantidad individualizada a percibir por persona beneficiaria o proyecto resultara insuficiente para la eficacia de las ayudas no procederá aplicar el prorrateo.</p> <p>n) En su caso, posibilidad de subcontratación en diferentes términos a los previstos con</p>
--	---



<p>aurreikusitakoez bestelako baldintzetan azpikontratatzeko aukera.</p> <p>o) Hala badagokio, pertsona edo entitate onuradunak proiektuaren aurrekontuaren ze portzentaje finantzatu behar duen, dela finantzazio propioaren bidez, dela beste dirulaguntza batzuen bitartez.</p> <p>p) Ordainketa aurreratuak eta konturako abonauk egiteko aukera. Deialdiak aurreikuspen hori eginda ez badauka, dirulaguntzaren ordainketa egingo da pertsona edo entitate onuradunak jarduera edo proiektua gauzatu izanaren justifikazioa egin ondoren.</p> <p>q) Hala badagokio, pertsona edo entitate onuradunek, edo entitate laguntzaileek, eratu behar duten berme-araubidea.</p> <p>r) Dirulaguntza bateragarria edo bateraezina den.</p> <p>s) Justifikatzeko modua eta epea.</p> <p>t) Proiektuan, aurreikusi gabeko zirkunstantzien ondorioz, aldaketak sartzeko aukerarik ba ote dagoen.</p> <p>u) Hala badagokio, baldintza hau: Udalaren finantzaketa publikoa jaso duela azaltzea diruz lagundutako jardueraren dokumentazio eta propaganda idatzi edo grafiko guztietan.</p> <p>Oinarri arautzaileak deialdiarekin batera onartu eta argitaratzen badira, deialdian</p>	<p>carácter general en esta ordenanza.</p> <p>o) En su caso, tanto por ciento del presupuesto del proyecto a financiar por la persona o entidad beneficiaria, bien por financiación propia o a través de otras subvenciones.</p> <p>p) La posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta. En caso de que la convocatoria no contenga tal previsión el pago de la subvención se realizará previa justificación por la persona o entidad beneficiaria de la realización de la actividad o proyecto.</p> <p>q) En su caso, régimen de garantías que deben constituir las personas o entidades beneficiarias, o las entidades colaboradoras.</p> <p>r) Compatibilidad o incompatibilidad de la subvención</p> <p>s) Forma y plazo de justificación.</p> <p>t) Posibilidad de introducir modificaciones en el proyecto como consecuencia de circunstancias no previstas.</p> <p>u) En su caso, la condición de que en toda la documentación y propaganda escrita o gráfica de la actividad subvencionada se haga constar la financiación pública del Ayuntamiento.</p> <p>En el caso de que las bases reguladoras se aprueben y publiquen junto con la</p>
--	--



<p>ez dira sartuko oinarri horietan arautzen diren edukiak.</p> <p>5. Tolosako Udalak dirulaguntzak emateko irizpide orokor gisa balio dezakete, besteak beste, honako hauek:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Dirulaguntza eskatzen duenaren ahalmen ekonomikoa.b) Proiektuaren bideragarritasuna.c) Ekintzaren justifikazioaren, jarritako helburuen eta proposatutako jardueren arteko koherentzia.d) Jardueraren edo proiektuaren sormena, lanketa-maila, berrikuntza, originaltasuna edo interesa.e) Proiektuan genero-ikuspegia kontuan hartzea. <p>Balorazio-irizpideen baremo osoaren gutxienez % 5arekin balioetsiko dira parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindako ekintzak eta politikak, eta/edo dirulaguntzara aurkezten den proiektuan genero-ikuspegia txertatzearekin zerikusia duten beste alderdi batzuk. Hori guztia, salbu eta objektiboki justifikatzen bada ehuneko hori neurritz kanpoko delat dirulaguntzak emakumeen eta gizonen egoeran duen eraginari dagokionez.</p> <p>Emakumeen eta gizonen berdintasuna dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta alderdi garrantzitsua bada, oinarri</p>	<p>convocatoria, ésta no incluirá los contenidos regulados en las mismas.</p> <p>5. Podrán servir de criterios generales para el otorgamiento de subvenciones por el Ayuntamiento de Tolosa, entre otros, los siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Capacidad económica de la persona solicitante.b) Viabilidad del proyecto.c) Coherencia entre la justificación de la acción, los objetivos trazados y las actividades propuestas.d) Creatividad, grado de elaboración, innovación, originalidad, o interés de la actividad o proyecto.e) Incorporación del enfoque de género al proyecto. <p>Se valorarán, al menos, con un 5% del baremo total de los criterios de valoración, las acciones y políticas en materia de igualdad de mujeres y hombres realizadas por las personas físicas o jurídicas participantes y/o otros aspectos relacionados con la incorporación de la perspectiva de género en el proyecto que se presenta a subvención. Todo ello, salvo que objetivamente se justifique que este porcentaje es desproporcionado en cuanto a la incidencia de la subvención en la situación de mujeres y hombres.</p> <p>Si la igualdad de mujeres y hombres es un aspecto relevante en función del objeto de la subvención, se</p>
--	---



<p>arautzaileetan honako baldintza hauetako bat edo batzuk sartzea proposatzen da: pertsonekin lotutako balorazio-irizpideen artean, puntuazio gehigarri bat ematea proposatzen da dirulaguntzaren hartzailea emakumea (edo guraso bakarreko familia) bada, edo emakumeen edo indarkeria matxistaren biktima izandako emakumea bada.</p> <p>f) Proiektu edo jardueratik eratorritako ondorioen iraunkortasun maila.</p> <p>g) Beste entitateekiko koordinazio-eta lankidetzeta maila.</p> <p>h) Esperientzia antzeko proiektuetan.</p> <p>i) Entitatea zenbat kidek osatzen duten eta jarduerak zenbateko eragin soziala duen, jarduera horietan izena eman duten partaideen kopuruaren arabera.</p> <p>j) Pertsona edo entitate onuradunaren gaitasun teknikoa, antolakuntzazkoa eta kudeatzekoa.</p> <p>k) Proiektuaren egokitzapena, baldintza sozialei, kulturei edo beraren garapen-esparruko beste baldintza batzuei dagokienez.</p> <p>l) Kalitate teknikoa.</p> <p>m) Kalitate artistikoa.</p> <p>n) Dirulaguntza eskatzen duen pertsona edo entitatea autofinantzatzeko gai izatea eta</p>	<p>propone incluir en las bases reguladoras uno o varios de los siguientes requisitos: entre los criterios de valoración relacionados con las personas, se propone otorgar una puntuación adicional si la perceptora de la subvención es una mujer (o una familia monoparental) o una mujer víctima de mujeres o violencia machista.</p> <p>f) Grado de permanencia de los efectos derivados de la actividad o proyecto.</p> <p>g) Grado de coordinación y colaboración con otras entidades.</p> <p>h) Experiencia en proyectos similares.</p> <p>i) Número de componentes que constituyen la entidad e impacto social de las actividades en referencia al número de participantes que se hayan inscrito en las mismas.</p> <p>j) Capacidad técnica, organizativa y de gestión de la persona o entidad solicitante.</p> <p>k) Adecuación del proyecto a las condiciones sociales, culturales u otras del ámbito donde se vaya a desarrollar.</p> <p>l) Calidad técnica.</p> <p>m) Calidad artística.</p> <p>n) Capacidad de autofinanciación de la persona o entidad solicitante y disponibilidad de otros fondos de financiación.</p>
---	--



<p>finantzatzeke beste funts batzuk edukitzea.</p> <p>o) Programatutako proiektuaren edo jardueren jarraipena eta ebaluazioa.</p> <p>p) Iritzi publikoaren sentsibilizazioari egiten dion ekarpena.</p> <p>q) Jardueren erabilgarritasun maila Tolosako biztanleentzat.</p> <p>r) Proiektu edo jardueraren garapenean parte hartzen duten boluntarioen portzentajea.</p> <p>s) Proiektuak edo jarduerak laguntzen ote dien biztanleria-hartzailearen bizi-kalitatearen hobekuntza ekar dezaketen prestakuntza- edo heziketa-alderdiei.</p> <p>t) Diruz lagundutako jardueraren hartzaile den biztanleriaren partaidetza aktiboa.</p> <p>6. Deialdia argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean –zeinak deialdiaren laburpen bat bidaliko baitu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera– eta udalaren webgunean. Egin liteke beste argitalpen osagarri bat, deialdia egiteko eskumena duen organoak xedatutako forman eta hedabideen bitartez.</p> <p>7. Interesa duten pertsonak eskabidea aurkeztu behar dute, helburu horretarako deialdian arautzen den ereduan. Eskabideak aurkezteko epea dagokien deialdietan zehaztuko da eta ezingo da izan 20 egun naturalekoa baino laburragoa.</p>	<p>o) Sistema de seguimiento y evaluación del proyecto o de las actividades programadas.</p> <p>p) Contribución a la sensibilización de la opinión pública.</p> <p>q) Grado de accesibilidad a las actividades por parte de la ciudadanía de Tolosa.</p> <p>r) Porcentaje de participación del voluntariado en el desarrollo del proyecto o actividad.</p> <p>s) Favorecimiento de los aspectos formativos o educativos que puedan comportar una mejora de la calidad de vida de la población destinataria.</p> <p>t) Participación activa de la población destinataria de la acción subvencionada.</p> <p>6. La convocatoria será publicada en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, que remitirá el extracto de la misma al Boletín Oficial de la Provincia de Gipuzkoa, y en la página web municipal. Se podrá realizar una publicación adicional en la forma y por los medios que se establezcan por el órgano competente para realizar la convocatoria.</p> <p>7. Las personas interesadas deberán presentar la solicitud en el modelo normalizado que a tal efecto se determine en la convocatoria. El plazo para presentar las solicitudes se fijará en las correspondientes convocatorias y no podrá ser inferior a 20 días naturales.</p> <p>8. Las convocatorias de subvenciones exigirán la presentación, junto con la</p>
---	--



<p>29. <i>artikulua. Udalaren dirulaguntzen justifikazioa</i></p> <p>1. Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOren 30. artikuluan, DLOren Araudian eta ordenantza honetan aurreikusita dagoenaren arabera.</p> <p>2. Justifikazioa laguntza eman duen organoaren aurrean egingo da. Oinarri arautzailean, hitzarmenaren testuan edo laguntza zuzenean emateko ebazpenean zehaztuko da dirulaguntzak justifikatzeko modua, eta era hauetako bat izango da:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Egindako gastua justifikatzen duen kontua.b) Gastuaren egiaztapena, moduluka.c) Kontabilitate-orriak aurkeztea. <p>3. Ordenantza honi jarraituta ematen diren dirulaguntzak honela justifikatuko dira: «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztea» edo, hala badagokio, «kontu erraztua» modalitatea erabilita, beste moduren bat aurreikusi ezean.</p> <p>4. Pertsona jasotzailea egoera jakin batean dagoelako ematen diren dirulaguntzen kasuan, justifikazio bakarra</p>	<p>Artículo 29. Justificación de las subvenciones municipales</p> <p>1. La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención se realizará en los términos previstos en el artículo 30 de la LGS, su Reglamento y la presente ordenanza</p> <p>2. La justificación se realizará ante el órgano concedente. La modalidad de justificación de subvenciones vendrá especificada en la base reguladora, en el texto del convenio, o en la resolución de concesión directa y deberá revestir una de las siguientes formas:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Cuenta justificativa del gasto realizado.b) Acreditación del gasto por módulos.c) Presentación de estados contables. <p>3. La justificación de las subvenciones que se otorguen con arreglo a la presente Ordenanza, se realizará mediante la modalidad “cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto” o, en su caso, “cuenta simplificada”, en defecto de previsión de otra modalidad.</p> <p>4. Las subvenciones que se concedan en atención a la concurrencia de una</p>



<p>beharko da: dirulaguntza eman baino lehen, zuzenbidean onartzeko modukoa den edozein bide baliatuz, delako egoera hori egiaztatzea. Horrek ez du baztertzen, baina, egoera hori benetan gertatzen ote den egiaztatzeko kontrolak egiteko aukera. Beraz, justifikazioa ez da izango dirulaguntza ematearen ondoriozko karga edo obligazio bat, baizik eta dirulaguntza emateko betebeharrak izango da.</p>	<p>determinada situación en quien las perciba no requerirán otra justificación que la acreditación por cualquier medio admisible en derecho de dicha situación previamente a la concesión, sin perjuicio de los controles que pudieran establecerse para verificar su existencia. La justificación no será pues una carga u obligación derivada de la concesión de la subvención sino que será un requisito para la concesión.</p>
<p>30. artikulua. <i>Justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta.</i></p> <p>1. Justifikatzeko kontuak, oro har, honako dokumentazio hau jasoko du:</p> <p>1.1 Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren. Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena, adierazten den moduan, memorian sexuaren arabera bereizita aurkeztuko da emandako zerbitzuaren onuradunen edo azken erabiltzaileen, titularren eta langileen eta erakundeak dirulaguntza eskatu den zerbitzua emateko kontratatutako langileen informazioa.</p> <p>Memoria horretan berariaz jaso behar da dirulaguntzaren helburua bete dela eta, hala badagokio, aurreikusitako helburuen aldean benetan lortutako ebaluazio bat.</p>	<p>Artículo 30. Cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto</p> <p>1. La cuenta justificativa contendrá, con carácter general, la siguiente documentación:</p> <p>1.1 Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. Tal y como se recoge en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en la memoria se presentará la información desagregada por sexo de las personas beneficiarias o usuarias finales del servicio prestado, de la personas titulares y trabajadoras, y del personal contratado por la entidad para la prestación del servicio para el que se solicita la subvención.</p> <p>En la memoria deberá constar expresamente que ha sido cumplida la finalidad para la cual se otorgó la subvención y, en su caso, una evaluación de los resultados obtenidos respecto a los previstos.</p>



<p>1.2. Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria bat, hauek adierazita:</p> <p>a)Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.</p> <p>b)Gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda bat, hartzekoduna eta dokumentua, data eta ordainketa datak adierazita. Gainera, dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastu eta inbertsoen zerrenda proiektuaren edo diruz lagundutako jardueraren partiden arabera ere sailkatuko da eta adieraziko da zein desbideratze izan diren.</p> <p>Zerrenda horretako zenbateko guztiak batu behar dira, zehaztu ahal izateko benetan egindako proiektu edo jardueraren amaierako kostuaren portzentajetik zein izan den Tolosako Udalak emandako dirulaguntzarekin finantzatu dutena.</p> <p>Zerrendatutako gastu eta inbertsio bakoitzeko adieraziko da zein izan duen finantzazio-iturria (Udalak emandako dirulaguntza, beste entitate publiko batzuek emandako dirulaguntzak, pertsona onuradunak jarritako finantzazioa, funtsen etekin finantzarioak eta beste sarrera batzuk). Finantzazio-iturri bat baino gehiago erabili badira, adieraziko da horietako bakoitzak zein portzentajetan parte hartu duen.</p>	<p>1.2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:</p> <p>a)Un balance de ingresos y gastos.</p> <p>b)Una relación clasificada de gastos e inversiones, con identificación del acreedor y del documento, su importe y las fechas de emisión y de pago. Además, cuando la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, la relación de gastos e inversiones se clasificará adicionalmente por las partidas del proyecto o actividad subvencionada y se indicarán las desviaciones acaecidas.</p> <p>Dicha relación deberá totalizarse al objeto de poder determinar cuál ha sido el porcentaje del coste final del proyecto o actividad efectivamente ejecutada que han financiado el Ayuntamiento de Tolosa con la subvención concedida.</p> <p>Para cada uno de los gastos e inversiones relacionados se indicará cuál ha sido la fuente de financiación (subvención concedida por el Ayuntamiento, subvenciones concedidas por otras entidades públicas, financiación aportada por la persona beneficiaria, rendimientos financieros de los fondos y otros ingresos). Cuando se hubieran utilizado más de una fuente de financiación se indicará el porcentaje en el que hubiera participado cada una de ellas.</p>
--	---



<p>c) Fakturak eta merkataritzako trafikoko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak, aurreko b) letran aipatzen den zerrendan sartuta. Agiri horiei erantsiko zaie egindako ordainketak egiaztatzen dituen dokumentazioa.</p> <p>Jatorrizko agiri horiek zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera aurkeztuko dira, hurrenez hurren ordenatuta, eta zigilatu egin beharko dira pertsona onuradunak lortu dituen beste dirulaguntza batzuk, lortu baditu, errazago kontrolatzeko. Horretarako, zigiluan adieraziko dira, gutxien-gutxienez, honako datu hauek:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Udal administrazio-espeditentearen zenbakia.2. Diruz lagundutako proiektuaren izena.3. Dirulaguntza zein ekitaldi ekonomikotan eman den.4. Dirulaguntza zein organok eman duen eta zein administrazio-egintzatan.5. Dirulaguntzari egotz dakioken finantzazioaren portzentajea edo dirulaguntzaren zenbateko zehatza. <p>Pertsona onuradunek ezin badute agiriren bat Tolosako Udalaren esku utzi, jatorrizko agiriarekin batera aurkeztuko da haren kopia bat, eta dagokion kudeaketa-zerbitzuak konpulsatuko egingo du.</p>	<p>c) Las facturas y los restantes documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, incorporados en la relación a que se hace referencia en la letra b) anterior, a los que se unirá la documentación acreditativa de los pagos realizados.</p> <p>Dichos documentos originales se presentarán ordenados correlativamente según el número de orden asignado en la relación numerada, y deberán estampillarse para facilitar el control de la concurrencia de otras subvenciones que haya podido obtener la persona beneficiaria. A tal efecto, en la estampilla se indicarán, como mínimo, los siguientes datos:</p> <ol style="list-style-type: none">1º. El número de expediente administrativo municipal.2º. La denominación del proyecto subvencionado.3º. Ejercicio económico de la concesión de la subvención.4º. Órgano y acto administrativo de concesión de la subvención.5º. Porcentaje de financiación imputable a la subvención o cuantía exacta de la subvención. <p>Cuando las personas beneficiarias no puedan dejar algún documento original en poder del Ayuntamiento de Tolosa, se presentará el original y una copia del mismo, que será compulsada por el servicio gestor correspondiente.</p>
--	--



<p>Jatorrizko agiriek entitate onuraduneari geratu beharko dute gordeta, gutxienez lau urtez.</p> <p>d) Justifikazioa egin baino lehenago ordainketa aurreratuak egiten badira, pertsona onuradunak aurkeztu beharko ditu ordaindutako funtsek sortutako finantza-etekinak egiaztatzeko agiriak. Finantza-etekinik sortu ez bada, horri buruzko erantzukizunpeko aitortza aurkeztu beharko da.</p> <p>e) Berreskuratu edo konpentsatu ezin daitezkeen zeharkako zergak justifikazioaren osagaiak badira, pertsona onuradunak aurkeztu beharko du erantzukizunpeko aitortza bat, zehaztu ahal izateko frogagiritan ageri diren zergetatik zein hartu litezkeen diruz lagundutako gastutzat.</p> <p>f) Ondasun higiezinak eskuratzen direnean, ekarri beharko da dagokion erregistro ofizialean inskribaturik eta behar bezala egiaztaturik dagoen tasatzaile independente baten ziurtagiria, kostuaren eta merkatuko prezioaren ingurukoa.</p> <p>g) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehaztu bat, zenbatekoa eta jatorria adierazita.</p> <p>h) DLOren 31.3 artikuluari jarraituta, pertsona onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.</p>	<p>Los documentos originales deberán permanecer depositados en la entidad beneficiaria durante un periodo de al menos cuatro años.</p> <p>d) Cuando se realicen pagos anticipados con carácter previo a la justificación, la persona beneficiaria deberá presentar la documentación acreditativa de los rendimientos financieros que se generen por los fondos librados. En el supuesto de que no se hubieran generado rendimientos financieros se aportará declaración responsable al respecto.</p> <p>e) Cuando los impuestos indirectos no susceptibles de recuperación o compensación formen parte de la justificación, la persona beneficiaria deberá presentar declaración responsable que permita determinar qué impuestos de los que aparecen en los justificantes pueden considerarse gastos subvencionables.</p> <p>f) En el caso de adquisición de bienes inmuebles, se exigirá certificado de tasador independiente debidamente acreditado e inscrito en el correspondiente registro oficial, en relación con el coste y el precio de mercado.</p> <p>g) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.</p>
---	---



<p>i)Hala badagokio, aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.</p> <p>2. Aurreko atalean esandakoa gorabehera, DLOren Araudiaren 72.3 artikuluan xedatutakoaren anparoen, ondasun edo zerbitzu jakin batzuen erosketa finantzatzea beste helbururik ez duten dirulaguntzetan, faktura bakar baten bitartez egiaztatzeak direnak, agiri hauek bakarrik aurkeztu beharko dira: jardueraren memoria bat eta egindako gastua justifikatzen duen faktura, pertsona onuradunak konformatua eta ordainagiriaz lagunduta. Dena dela, Administrazioak egiaztapen materiala egin ahal izango du lau urteko epearen barruan. Baldin eta onuraduna kontabilitatea eraman beharra daukan enpresa edo entitate bat bada, fakturan dagokion kontabilitate-oharraren datuak jasota egon beharko dute.</p> <p>3. Justifikazioko kontuetan aurkezten diren fakturek honako baldintza hauek bete behar dituzte:</p> <p>a) Bete behar dute fakturazio-betebeharrak arautzeko erregelamendua onartzen duen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan, edo hori ordezkatzeko duen araudian, izaera orokorraz exijitutako edukia.</p>	<p>h)Los tres presupuestos que, en aplicación del artículo 31.3 de la LGS, deba de haber solicitado la persona beneficiaria.</p> <p>i)En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos.</p> <p>2. No obstante lo anterior, al amparo de lo dispuesto en el artículo 72.3 Reglamento de la LGS, en las subvenciones que tengan por finalidad exclusiva financiar la adquisición de bienes o servicios concretos, a acreditar mediante una única factura, no será preciso presentar otra documentación que una memoria de actuación y la factura justificativa del gasto realizado, conformada por la persona beneficiaria y acompañada de la acreditación del pago, sin perjuicio de la comprobación material que podrá practicar la Administración en el plazo de cuatro años. En caso de que la beneficiaria fuera una empresa o entidad sujeta a llevar contabilidad, en la factura deberán constar los datos del correspondiente apunte contable.</p> <p>3. Las facturas que se presenten en las cuentas justificativas deberán cumplir los siguientes requisitos:</p> <p>a) Habrán de ajustarse al contenido exigido con carácter general en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, aprobado por Real Decreto 1619/2012, de 30 de noviembre, o en la normativa que lo sustituya.</p> <p>b) Habrán de estar fechadas en el ejercicio económico para el que se haya concedido la subvención. Sólo se</p>
---	--



<p>b) Fakturen datak izan beharko du dirulaguntza ematean helburutzat jarritako ekitaldi ekonomiko berekoa. Proiektua egikaritzeko hasieran aurreikusitakoaz bestelako datak onartuko dira, bakar-bakarrik organo eskudunak onartu baldin badu egikaritze-epari eragiten dion proiektuaren aldaketa bat.</p> <p>c) Fakturak ematen dituen entitate bat BEZa ordaintzetik salbuetsita badago, fakturari erantsi beharko zaio salbuespena ziurtasun osoz egiaztatzen duen egiaztigiri bat, organo eskudunak emana.</p>	<p>aceptarán facturas con fecha distinta a las inicialmente previstas para la ejecución del proyecto, en aquellos casos en que previamente se haya autorizado por el órgano competente una modificación del mismo que afectare a su plazo de ejecución.</p> <p>c) Cuando una entidad emisora de facturas esté exenta del IVA habrá de acompañarse certificado expedido por órgano competente que acredite de forma fehaciente la exención de que se trate.</p>
<p>31. artikulua. Justifikatzeko kontu erraztua</p> <p>1. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 euro baino txikiago bada, dirulaguntzaren deialdian, hitzarmenean edo zuzenean emateko ebazpenean justifikatzeko kontu erraztua aukeratzea egongo da, artikulua honen 2. puntuan adierazten den edukia duela.</p> <p>2. Justifikatzeko kontuak informazio hau izango du:</p> <p>a) Jarduera-memoria bat dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko, non adieraziko baitira zer jarduera egin diren eta zer emaitza lortu diren</p> <p>b) Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.</p> <p>c) Gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda bat, eta bertan jasota hartzekoduna eta dokumentua, data eta ordainketa</p>	<p>Artículo 31. Cuenta justificativa simplificada</p> <p>1. Para las subvenciones concedidas por importe inferior a 60.000 euros, se podrá optar por la cuenta justificativa simplificada en la respectiva convocatoria, convenio o resolución de concesión directa, con el contenido que se indica en el punto 2 de este artículo,</p> <p>2. La cuenta justificativa contendrá la siguiente información:</p> <p>a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.</p> <p>b) Un balance de ingresos y gastos.</p> <p>c) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su</p>



<p>datak, aurreko artikuluan adierazi den moduan justifikatuko dena.</p> <p>Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, zer desbideratze izan diren adieraziko da.</p> <p>d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zehaztapan bat, zenbatekoa eta jatorria adierazita.</p> <p>e) Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.</p> <p>3. Organo emaileak dirulaguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagiriaren lagin bat begiratuta. Dagokion deialdian, laguntza emateko-erabakian edo hitzarmenean zehaztuko da zein den egiaztatu beharreko elementu-kopurua, muga hauek errespetatuta:</p> <p>a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren 100eko 25 gainditzten duten egiaztagiri guztiak begiratuko dira.</p> <p>b) Gainerako egiaztagirietatik, elementuen lagin bat begiratuko da; gutxienez portzentaje hau populazio osoaren elementu-kopuruarekiko:</p> <ul style="list-style-type: none">- Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gutxiago badira: 100eko 100.- Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogeit hamar edo hogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 70.- Egiaztagiriak hogeit hamar baino gehiago eta berrogeit hamar edo	<p>importe, y de las fechas de emisión y de pago, que se justificará en los términos indicados en el artículo anterior.</p> <p>En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.</p> <p>d) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.</p> <p>e) Carta de pago del reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.</p> <p>3. El órgano concedente comprobará una muestra de justificantes de gasto que permita obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención. La respectiva convocatoria, acuerdo de concesión o convenio determinará el volumen de elementos a comprobar respetando los límites que a continuación se indican:</p> <p>a) Se comprobarán todos los justificantes que superen individualmente el 25 por 100 del importe de la subvención concedida.</p> <p>b) Del resto de los justificantes se comprobará una muestra de elementos que al menos suponga el siguiente porcentaje respecto del número de elementos de la población total:</p> <ul style="list-style-type: none">- Si el número de justificantes fuera inferior o igual a diez: 100 por 100.
---	---



<p>berrogeita hamar baino gutxiago badira: 100eko 40.</p> <ul style="list-style-type: none">- Egiaztagiriak berrogeita hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: 100eko 30.- Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: 100eko 20. <p>4. Laginaren hautaketa ausazkoa dela bermatzeko, honako hautapen-prozedura honi jarraituko zaio:</p> <p>a)Populazioa osatzen duten elementuen kopurua zehaztuko da, eta kopuru horretatik kanpo utziko dira, duten kopurua dela-eta begiratu direnak.</p> <p>b)Egiaztagiriei zenbakia jarriko zaie, onuradunak justifikazio-kontuan aurkeztutako gastuen zerrenda sailkatuaren ordenaren arabera.</p> <p>c)Zehaztuko da zein den hautatu beharreko lagina osatuko duten egiaztagirien kopurua, kontuan hartuta dagokion deialdian, laguntza emateko erabakian edo hitzarmenean ezarritakoa.</p> <p>d)Populazio osoa eratzen duten elementuen kopurua laginaren elementuekin zatitzearen emaitza aterako da, eta dezimalak hurbilen dagoen zenbaki osora biribilduko dira.</p> <p>e)Laginaren lehen elementua ausaz hautatuko da, kalkulatuak zatiketaren emaitzaren arabera.</p> <p>f)Laginaren gainerako elementuak progresio aritmetiko bat aplikatuta</p>	<ul style="list-style-type: none">- Si el número de justificantes fuera superior a diez e inferior o igual a veinte: 70 por 100.- Si el número de justificantes fuera superior a veinte e inferior o igual a cincuenta: 40 por 100.- Si el número de justificantes fuera superior a cincuenta e inferior o igual a cien: 30 por 100.- Si el número de justificantes fuera superior a 100: 20 por 100. <p>4. Para garantizar la aleatoriedad en la selección de la muestra se seguirá el siguiente procedimiento de selección:</p> <p>a)Se determinará el número de elementos que conforman la población, excluyendo aquellos que por razón de su importe vayan a ser objeto de comprobación.</p> <p>b)Se numerarán los justificantes conforme al orden de la relación clasificada de gastos aportada por la persona beneficiaria en la cuenta justificativa.</p> <p>c)Se determinará el volumen de justificantes que conformarán la muestra a seleccionar, de conformidad con lo establecido en la respectiva convocatoria, acuerdo de concesión o convenio.</p> <p>d)Se obtendrá el cociente resultante de dividir el número de elementos que conforman la población total entre el número de elementos de la muestra, redondeando los decimales al número entero más próximo.</p>
--	--



<p>zehaztuko dira, eta haren arrazoia kalkulaturako emaitzaren berdina den.</p> <p>5. Gastu-frogagiriaren lagina osatzen duten gastuak behar bezala justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak aurkeztu beharko dira eta horiek aurreko 2.b) letran aipatzen den zerrendan sartuta egon beharko dute. Agiri horiei erantsiko zaie gastua ordaindu izanaren dokumentazioa.</p> <p>Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera hurrenez hurren ordenatuta.</p>	<p>e)Se seleccionará aleatoriamente el primer elemento de la muestra según el cociente calculado.</p> <p>f)Los restantes elementos muestrales se determinarán aplicando una progresión aritmética de razón igual al cociente calculado.</p> <p>5. Para la adecuada justificación de los gastos que constituyen la muestra de justificantes de gasto, deberán presentarse facturas y demás documentos de valor o eficacia administrativa para el tráfico jurídico mercantil, que deberán estar incluidos en la relación a que se refiere la letra 2.b) anterior. A dicha documentación se acompañará la documentación del pago del gasto.</p> <p>Estos documentos originales se presentarán ordenados respectivamente por el número de orden asignado en la relación numerada.</p>
<p>32. artikulua. Justifikazioa kontabilitate-orrien bidez</p> <p>1. Kontabilitate-orrien bidezko justifikazioa aplikatuko da DLOren Araudiaren 80. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta, bereziki, dirulaguntza hauetan: Udala partaide duten eta beren aurrekontua Tolosako Udaleko aurrekontu orokorraren barruan sartuta ez duten irabazi asmorik gabeko entitateen ustiapen- edo aurrekontu-defizitak estaltzeko helburua duten dirulaguntzak.</p> <p>2. Bidezko den kasuetan, kontabilitate-orri horiek izango dira eskatzaileak egin</p>	<p>Artículo 32. Justificación mediante estados contables</p> <p>1. La justificación mediante estados contables será aplicable en los supuestos previstos en el artículo 80 del Reglamento de la LGS y, en particular, respecto de las subvenciones que tengan por objeto cubrir déficits de explotación o presupuestarios de entidades sin ánimo de lucro participadas por el ayuntamiento, y cuyo presupuesto no esté integrado en el Presupuesto General del Ayuntamiento de Tolosa.</p> <p>2. En los supuestos en que proceda, dichos estados serán los que deba</p>



<p>behar dituenak, zein kontabilitate-erregimenen dagoen aintzat hartuta eta erregimen horren arabera, eta orri horiek dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko behar den adinako zehaztasuna eduki behar dute. Kontabilitate-orriekin batera dokumentazio hau aurkeztu behar da:</p> <ul style="list-style-type: none">- Dirulaguntzaren sarreraren kontabilitate-erregistroaren testigantza, dirulaguntza jaso duen entitateko kontabilitate-arduradunak emandako egiaztagiri baten bidez.- Egiaztatzea, elkarteen kasuan, urteko kontuak bidali direla haiek inskribatuta dauden erregistro publikora, edo, fundazioak baldin badira, babesletza egiten duen entitatara.- Dagokion auditoretza-txostena, entitate onuradunak bete behar duen araudian aurreikusitako sistemaren arabera.	<p>elaborar la persona solicitante, de acuerdo con el régimen de contabilidad a que esté sujeto, debiendo contener la especificación necesaria para determinar la cuantía de la subvención. A los estados contables deberá acompañarse la documentación siguiente:</p> <ul style="list-style-type: none">- Testimonio del registro contable del ingreso de la subvención mediante acreditación expedida por la persona responsable de la contabilidad de la entidad receptora.- Acreditación de que las cuentas anuales han sido remitidas al registro público en que están inscritas, en caso de tratarse de asociaciones, o, en el caso de las fundaciones, a la entidad que ejerce el protectorado.- El informe de auditoría que corresponda conforme al sistema previsto en la regulación a la que esté sometida la entidad beneficiaria.
<p>33. <i>artikulua. Justifikazioa moduluen bidez</i></p> <p>1. Moduluen sistemaren bidezko justifikazioa egingo da dirulaguntzaren arauak hala aurreikusten badute, baldin eta bai finantzatutako jarduerak, bai jarduera horiek egiteko behar diren baliabideak unitate fisikotan neurtu badaitezke. Deialdietan zehaztu beharko da zein unitate fisiko mota erabiliko den, bai eta modulu bakoitzari ze balio unitario egozten zaion.</p>	<p>Artículo 33. Justificación mediante módulos</p> <p>1. Se efectuará la justificación mediante el sistema de módulos en las subvenciones cuya regulación así lo prevea, cuando sean medibles en unidades físicas bien las actividades financiadas o bien los recursos necesarios para su realización. En las convocatorias deberá precisarse la clase de unidad física utilizada así como el valor unitario asignado a cada módulo</p>



<p>2. Moduluen bidezko justifikazio-sistemari lotutako onuradunek ez dute kontabilitate edo merkataritza arloko liburu, erregistro eta agiririk aurkeztu behar, diruz lagundutako programari edo jarduerari egotzitako sarrerei eragin diezaieketenak izan ezik.</p>	<p>2. Las personas beneficiarias que estén acogidas al sistema de justificación mediante módulos no tendrán obligación de presentar libros, registros y documentos de trascendencia contable o mercantil, con excepción de los que pudieran afectar a los ingresos imputables al programa o actividad subvencionada.</p>
<p>34. artikulua. Entitate laguntzaileek egiten duten justifikazioaren berezitasunak</p> <p>Entitate laguntzaileek egin beharreko justifikazioa osatzeko, alde batetik, egiaztatuko da onuradunei entregatu zaizkiela dagozkion funtsak eta, beste aldetik, onuradunek ekarritako justifikazioak aurkeztuko zaizkio laguntza ematen duen organoari. Gainera, justifikazioa ez da funtsen aplikaziora bakarrik mugatuko, baizik eta Udalaren eta entitate laguntzailearen artean egindako hitzarmenean ezarritako baldintzak bete direla ere justifikatu beharko da, eta aplikatuko zaizkie aurreko artikuluetan ezarritako justifikazio-moduak.</p> <p>Entitate laguntzailea behartuta egongo da, halaber, Udalaren funtsen kudeaketari buruz laguntza eman duen organoak agindu ditzakeen egiaztapen-jardueren mende jartzera, bai eta egiaztapen eta kontrol finantzarioko guztien mende, edozein direla ere, jartzera ere, aipatutako jarduketetan eskatzen zaion informazio guztia aurkeztuta.</p>	<p>Artículo 34. Peculiaridades de la justificación por parte de entidades colaboradoras</p> <p>La justificación que hayan de realizar las entidades colaboradoras comprenderá tanto la acreditación de la entrega a las personas beneficiarias de los fondos correspondientes, como la presentación ante el órgano concedente de las justificaciones aportadas por las personas beneficiarias y se extenderá no sólo a la aplicación de los fondos, sino también al cumplimiento de las condiciones establecidas en el convenio celebrado entre el Ayuntamiento y la entidad colaboradora, siéndoles de aplicación las modalidades de justificación establecidas en los artículos anteriores.</p> <p>La entidad colaboradora estará obligada, igualmente, a someterse a las actuaciones de comprobación que respecto de la gestión de los fondos municipales pueda acordar el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones citadas.</p>



35. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea

1. Dirulaguntzaren deialdian eta, hala bada gorkio, laguntza zuzenean emateko hitzarmenean edo ebazpenean zehaztuko da dirulaguntzen justifikazioa emateko epea zein den. Dirulaguntza justifikatzeko epea ez bada zehazten ez deialdian, ez hitzarmenean, ez eta ebazpenean ere, epe hori, oro har, hilabete batekoa izango da, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta.

2. Baldin eta gertatutako zirkunstantzia batzuek, behar bezala justifikatuta, justifikazioa aipatutako epearen barruan aurkeztea eragozten badute, dirulaguntza eman duen organoak eman ahal izango du, onuradunak hala eskatu ondoren, epearen luzapen bat, epearen erdia baino luzeagoa izango ez dena, eta, betiere hirugarrengoen eskubideak ez badira kaltetzen. Bai eskaera, bai epea luzatzeko ebazpena, biak egin behar dira justifikazio-epea bukatu aurretik.

3. Ezarritako justifikazio-epea igarota dirulaguntza eman duen organoaren aurrean justifikazioa ez bada aurkeztu, organo horrek hamabost eguneko epe luzaezin bat emango dio onuradunari, justifikazioa aurkez dezan. Azken epe hori igarota justifikazioa ez aurkezteak ekarriko du dirulaguntza itzuli beharra eta, gainera, DLOn ezarritako gainerako erantzukizunak; justifikazioa epe gehigarri horren barruan aurkeztuagatik ere, onuraduna ez da dagozkion zigorretatik salbuetsita geldituko.

Artículo **35.** Plazo de presentación de la justificación de las subvenciones

1. La convocatoria de la subvención y, en su caso, el convenio o resolución de concesión directa, especificarán el plazo de rendición de la justificación de las subvenciones. En el caso de que ni la convocatoria, ni el convenio, ni la resolución expresen el plazo para la justificación de la subvención, éste será, con carácter general, de un mes desde la finalización del plazo para la realización de la actividad.

2. Cuando circunstancias sobrevenidas, suficientemente justificadas, impidieran presentar la justificación en el indicado plazo, el órgano concedente de la subvención podrá otorgar, previa solicitud de la persona beneficiaria, una ampliación del plazo de justificación que no exceda de la mitad del mismo y siempre que con ello no se perjudiquen derechos de terceros. Tanto la solicitud como la resolución de ampliación deberán adoptarse antes de que finalice el plazo de justificación.

3. Transcurrido el plazo establecido de justificación sin haberse presentado la misma ante el órgano competente, éste requerirá a la persona beneficiaria para que en el plazo improrrogable de quince días sea presentada. El transcurso de este plazo sin que se haya presentado la justificación, lleva consigo la exigencia de reintegro y demás responsabilidades establecidas en la LGS, sin que la presentación de la justificación en este plazo adicional exima a la persona beneficiaria de las sanciones que correspondan.



<p>36. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa egiaztatu eta onartzea</p> <p>1. Behin onuradunak justifikazioa aurkeztuz gero, dirulaguntza kudeatzen duen zerbitzuak egiaztatu beharko du aurkeztutako dokumentazioak betetzen dituela ordenantza honetan, oinarri arautzailean eta dirulaguntzaren deialdian, hitzarmenean edo zuzenean emateko ebazpenean ezarritako baldintzak. Horretarako, beharrezkotzat hartzen diren egiaztapen formalak eta, hala badagokio, baita materialak ere, egingo ditu. Egiaztapen horien artean egon liteke dirulaguntzen merkatuko balioak egiaztatzea, DLOren 33. artikuluan araututa dagoena. Kapital-transferentziak direnean, espedienteari erantsiko zaio, hala badagokio, transferentzia egin izanaren egiaztapen materiala.</p> <p>2. Egiaztapena egindakoan, zerbitzuaren arduradunak egingo du behar den txostena, akordio-proposamen bat duela. Txostena aldekoa bada, bertan jasoarazi behar da dirulaguntza behar bezala justifikatutzat ematen dela eta, halaber, egiaztatu dela jarduera egin dela eta dirulaguntza ematea edo jasotzea arrazoitu zuen helburua bete dela.</p> <p>3. Txosten osoa Udaleko Kontuhartzaitzara helaraziko da, hark, bere eginkizuna betez, behar den txostena egin dezan dirulaguntzaren justifikazio formalaren inguruan.</p> <p>4. Txostena emandakoan, dirulaguntza eman zuen organoak justifikazioa onartuko du, hala badagokio, eta Udaleko</p>	<p>Artículo 36. Comprobación y aprobación de la justificación de las subvenciones</p> <p>1. Una vez presentada la justificación por la persona beneficiaria, el servicio gestor de la subvención procederá a la comprobación de que la documentación presentada cumple los requisitos establecidos en la presente ordenanza, en la base reguladora y en la respectiva convocatoria de la subvención, convenio o resolución de concesión directa. A tal efecto, efectuará las comprobaciones formales y, en su caso, materiales que se consideren necesarias, que podrán incluir la comprobación de los valores de mercado de los gastos subvencionados regulada en el artículo 33 de la LGS. Cuando se trate de transferencias de capital, se aportará al expediente, en su caso, el acta de comprobación material de su ejecución.</p> <p>2. Realizada la comprobación, la jefatura del servicio emitirá el correspondiente informe con una propuesta de acuerdo. Si el informe es de conformidad, se hará constar que se considera que se ha justificado adecuadamente la subvención, así como que se ha acreditado la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinó la concesión o disfrute de la misma.</p> <p>3. Se dará traslado del expediente completo a la Intervención municipal a los efectos de la emisión del correspondiente informe acerca de la justificación formal de la subvención en el ejercicio de la función interventora.</p> <p>4. Emitido el informe, se someterá a la aprobación de la justificación por el</p>
--	--



<p>Kontuhartzaitzari emango dio horren berri.</p> <p>5. Dirulaguntzaren onuradunak justifikazioan agerian uzten badu aldaketak izan direla dirulaguntza ematean kontuan izandako baldintzetan, eta aldaketa horiek, funtsean dirulaguntzaren izaera edo helburuak aldatzen ez badituzte ere, ebazpenaren aldaketa bat eragin zezaketela, eta alde zurretiko administrazio-baimena ez dela egin, dirulaguntza eman duen organoak onar dezake aurkeztutako justifikazioa, betiere deialdian hala aurreikusi bada. Horretarako, Kudeaketa-zerbitzuak eta udal Kontuhartzaitzak emandako aldeko txostenak eduki behar dira – artikulu honen hirugarren atalean adierazitakoaren arabera–, eta onarpen horren ondorioz ez zaie kalterik egin behar beste pertsona edo entitate batzuen eskubideei.</p> <p>6. DLOren III. Tituluan xedatutakoarekin bat etorrira, dirulaguntzak ematen dituen organoak egiaztatzeak ez die kalterik egin behar udal kontuhartzaileari dagokion finantza-kontrolako jardueri.</p>	<p>órgano que concedió la subvención, que habrá de comunicarlo a la Intervención municipal.</p> <p>5. Cuando la persona beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma, que no modifiquen esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención y que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa, el órgano concedente de la subvención, siempre que así se prevea en la convocatoria, podrá aceptar la justificación presentada. Para ello se habrá de contar con los informes favorables del Servicio gestor y de la Intervención municipal –en los términos del apartado tercero anterior–, y estará en todo caso condicionada a que tal aceptación no lesione derechos de terceras personas o entidades.</p> <p>6. De conformidad con lo establecido en el título III de la LGS, la comprobación de subvenciones por el órgano concedente se entiende sin perjuicio de las actuaciones de control financiero que competen al Interventor municipal.</p>
<p>37. artikulua. <i>Dirulaguntzak kobratzeko eskubide osoa edo zati bat galtzea eragiten duten kasuak</i></p> <p>1. Behin kudeaketa-zerbitzuak egiaztapena eginez gero, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza eman zuen organoak, onuradunari edo entitate laguntzaileari entzunaldia eman ondoren, eta udal kontuhartzaileak behar den txostena</p>	<p>Artículo 37. Supuestos determinantes de la pérdida total o parcial del derecho al cobro de las subvenciones</p> <p>1. Una vez efectuada la comprobación por el servicio gestor, según lo establecido en el artículo anterior, el órgano que concedió la subvención, previa audiencia de la persona beneficiaria o entidad colaboradora, y emitido el preceptivo informe del</p>



<p>eman duelarik, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu dela adieraziko du -eta, hala badagokio, ordaindutako kopuruak itzuli egin behar direla- baldin eta aipatutako txosten horrek esaten badu honoko ez-betetze kasu hauetako bat gertatzen dela:</p> <p>a)Dirulaguntza eskuratzea eskatutako baldintzak faltsututa edo dirulaguntza ematea eragozten dutenak ezkatututa.</p> <p>b)Helburua, jarduera edo proiektua osorik edo zati batean ez betetzea, edo dirulaguntza ematea arazoitzen duen portaera ez hartzea.</p> <p>c)Justifikatzeko obligazioa ez betetzea edo justifikazioa behar adinako ez izatea, kalterik egin gabe artikulua honen 2. atalean xedatutakoari.</p> <p>d)Egiaztapeneko edo finantza-kontrolako jardueri gogor egitea, aitzakiak edo oztopoak jartzea, edo uko egitea, bai eta kontabilitate-, erregistro- edo dokumentuen kontserbazio-betebeharrak ez betetzea, baldin eta ez betetze horren ondorioa bada ezin egiaztatzea jasotako funtsei emandako erabilera, helburuen betetzea, lagundutako jardueren egiazkotasuna eta erregularitasuna, edo edozein Administrazio edo entitate publiko edo pribatu, nazional, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetatik datozen dirulaguntza, laguntza edo baliabide bat baino gehiago izatea batera helburu bererako.</p>	<p>Interventor municipal, declarará la pérdida del derecho al cobro de la subvención –y, en su caso, el reintegro de las cantidades pagadas- si el referido informe constata la concurrencia de alguno de los supuestos de incumplimiento siguientes:</p> <p>a)La obtención de subvención falseando las condiciones requeridas u ocultando aquellas que lo hubiesen impedido.</p> <p>b)El incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.</p> <p>c)El incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 2 de este mismo artículo.</p> <p>d)La resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación o de control financiero, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentos cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.</p>
---	---



<p>e)Ez betetzea Administrazioak entitate laguntzaileei eta onuradunei ezarritako obligazioak, edo hauek bere gain hartutako konpromisoak, baldin eta dirulaguntza ematea arrazoitzen duten helburuak betetzeko, jarduera gauzatzeko, proiektua betearazteko edo portaera hartzeko moduari badagozkio edo eragiten badiote.</p> <p>f)Ez betetzea Administrazioak entitate laguntzaileei eta entitate onuradunei ezarritako obligazioak, edo dirulaguntza ematearen ondorioz hauek bere gain hartutako aurrekoez bestelako konpromisoak, baldin eta ez-betetze horretatik ondorioztatzen badira hauek egiaztatzea ezinezkoa izatea: jasotako funtsei emandako erabilera, helburuaren betetzea, diruz lagundutako jardueren egiazkotasuna eta erregularitasuna, edo edozein Administrazio edo entitate publiko edo pribatu, nazional, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetatik datozen dirulaguntza, laguntza edo baliabide bat baino gehiago izatea batera helburu bererako.</p> <p>g) Jarduera udal honek diruz laguntzen duela dioen dokumentazioan eta propagandan ez betetzea publikotasun- eta hedapen-neurriak hartzeko obligazioa, baldintza hori jarrita duten kasuetan.</p> <p>2. Pertsona edo entitate onuradunak azkenean jaso behar duen edo, hala badagokio, itzuli behar duen zenbatekoa</p>	<p>e)El incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las entidades colaboradoras y beneficiarios/as, así como los compromisos por éstos asumidos, siempre que afecten o se refieran al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.</p> <p>f)El incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las entidades colaboradoras y a las beneficiarias, así como los compromisos por éstos asumidos con motivo de la concesión de la subvención, distintos de los anteriores, cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.</p> <p>g)El incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de publicidad y difusión en la documentación y propaganda de que la actividad se halla subvencionada por este Ayuntamiento, en los casos en que se hubiese impuesto dicha condición.</p>
---	--



<p>zehazteko, dirulaguntzak ematean jarritako baldintzak ez betetze posibleei dagokienez honako mailakatze-irizpide hauek ezartzen dira:</p> <p>A. Kudeaketa-unitateak egiaztatzen badu onuradunaren edo, hala badagokio, entitate laguntzailearen betetze-maila betetze osora hurbiltzen dela, eta onuradun edo entitate horiek frogatzen badute izan dutela beren konpromisoak betetzera bideratutako jarrera zalantzagabea, laguntza eman duen organoak onartuko du dirulaguntza zati batean kobratzeko eskubidea, egindako jarduerak jarduera osoarekiko duen proportzioa aplikatuta.</p> <p>B. Baldin eta baldintzak edo epea osorik betetzea ezinbestekoa bada nahi den helburu publikoa lortzeko, dirulaguntza ematean jarritako baldintzetako edozein ez betetzea, edo epetik kanpo betetzea, izango da eskubide osoa galtzeko arrazoia -eta, hala badagokio, jasotakoa itzultzekoa-.</p> <p>C. Dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide bat baino gehiago jasotzen badira aldi berean, eta horiek diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen badute, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainean izandako soberakinaren zenbatekoan.</p> <p>3. Dirulaguntza kobratzeko eskubidearen galtzeak berekin ekarriko du, halaber, jasotako kopurua itzuli behar izatea Ordenantza honen VI. Kapituluan xedatutakoaren arabera.</p>	<p>2. A efectos de determinar la cantidad que finalmente haya de percibir la persona o entidad beneficiaria o, en su caso, el importe a reintegrar, se establecen los siguientes criterios de graduación de los posibles incumplimientos de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de subvenciones:</p> <p>A. Cuando la unidad gestora constate que el cumplimiento por la persona beneficiaria o, en su caso, entidad colaboradora, se aproxima al cumplimiento total, y se acredita por éstos una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos, el órgano concedente reconocerá el derecho al cobro parcial de la subvención, aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.</p> <p>B. Cuando el cumplimiento total de las condiciones o del plazo, fueran determinantes para la consecución del fin público perseguido, será causa de pérdida total del derecho -y del reintegro de lo percibido, en su caso- el incumplimiento de cualquiera de las condiciones impuestas con motivo de la concesión o su cumplimiento extemporáneo.</p> <p>C. En el supuesto de concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que superen el coste de la actividad subvencionada, se procederá a declarar la pérdida del derecho a la subvención en el importe en que se cuantifique el exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.</p> <p>3. La declaración de la pérdida del derecho al cobro conllevará la exigencia</p>
--	---



	del reintegro de lo percibido en los términos regulados en el Capítulo VI de esta ordenanza.
V. KAPITULUA. AURREKONTUA KUDEATZEKO PROZEDURA	CAPÍTULO V. PROCEDIMIENTO DE GESTIÓN PRESUPUESTARIA
<p>38. artikulua.- <i>Gastua egiteko prozedura</i></p> <p>1. Dirulaguntzaren deialdia egin aurretik edo dirulaguntza zuzenean eman baino lehen, gastua onartu beharko da, toki-ogasunaren gaineko legeetan eta Udal Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan aurreikusitakoaren arabera.</p> <p>2. Dirulaguntza emateko araubidea norgehiagokakoa baldin bada, organo eskudunak gastua onartu beharko du deialdia egin aurretik, eta horretarako behar den Gastua Baimentzeko kontabilitate-agiria tramitatuko da, aurreikusita dauden dirulaguntzen guztizko zenbatekoagatik.</p> <p>Baldin eta deialdia onartzen bada dirulaguntzak emango direneko aurrekontu-ekitaldian ez baizik aurreragoko batean, deialdian berariaz jasoarazi beharko da ezen dirulaguntzak emateko beharrezkoa izango dela kreditu egoki eta nahikoa egotea emakida-ebazpena ematen den garaian.</p> <p>Dirulaguntza onuradun jakin eta zehatzari emateko ebazpenak berekin ekarriko du onuradunaren aldeko gastua egiteko konpromiso edo prestutasuna, ematen den dirulaguntzaren zenbatekoarekin, eta behar den kontabilitate-agiria sortuko da.</p>	<p>Artículo 38. Procedimiento de ejecución del gasto</p> <p>1. Con carácter previo a la convocatoria de la subvención o la concesión directa de la misma, deberá efectuarse la aprobación del gasto en los términos previstos en la legislación de haciendas locales y las Bases de Ejecución del Presupuesto Municipal.</p> <p>2. Cuando el régimen de concesión de las subvención sea el de concurrencia competitiva, con carácter previo a la convocatoria deberá aprobarse el gasto por el órgano competente, tramitándose para ello el correspondiente documento contable de Autorización de Gasto por el importe total de las subvenciones que se prevea conceder.</p> <p>Si la convocatoria se aprobara en un ejercicio presupuestario anterior a aquél en que vaya a tener lugar la concesión de las subvenciones, deberá hacerse constar expresamente en la misma que dicha concesión queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de la concesión.</p> <p>La resolución de concesión a la persona beneficiaria concreta y determinada, conllevará el compromiso o disposición del gasto a favor de la persona beneficiaria por el importe de la</p>



<p>3. Dirulaguntzaren erregulazioan aurreikusita baldin badago ordainketa aurreratua, kontura edo zatikatua egiteko aukera, horretaz gain obligazioa onartu eta likidatu egingo da, behar den zenbatekoarekin.</p> <p>4. Dirulaguntzak zuzenean ematen direnean, Gastua Onartzeko eta Xedatzeko agiria aurkeztuko da, eta bertan agertuko da zein den onuraduna eta eman beharreko zenbatekoa. Dirulaguntza zuzenean emateko ebazpenak berekin eraman ahal izango du obligazioa onartzea eta likidatzea, aurreko puntuan adierazitakoaren arabera.</p> <p>5. Ordenantza honen 23.2 artikuluko a) eta b) letretan aurreikusitako dirulaguntza izendunei dagokienez, Aurrekontu Orokorra indarrean sartzen denean egingo dira gastua onartzeko eta konprometitzeko kontabilitate-eragiketak, dagokion Aurrekontu berriari aplikazioari egotzita.</p> <p>Hala ere, aipatutako artikulua c) letran deskribatutakoei dagokienez, gastuaren onarpena eta konpromisoa ez dira erregistratuko harik eta dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena onartzen den arte.</p> <p>6. Obligazioaren aitorpena eta likidazioa egingo da Obligazioaren Aitorpena izeneko kontabilitate-agiriaren bitartez, agiri horri ondoren adierazten den dokumentazioa erantsita, kalterik egin gabe, hala baldin badagokio, bere</p>	<p>subvención que se concede, generándose el correspondiente documento contable.</p> <p>3. En los supuestos en que la regulación de la subvención contemple la posibilidad de efectuar el pago anticipado, a cuenta o fraccionado, se procederá además al reconocimiento y liquidación de la obligación por el importe que proceda.</p> <p>4. Cuando se trate de la concesión directa de subvenciones, se aportará al expediente el documento contable de Autorización y Disposición del Gasto, en el que figurará la persona beneficiaria e importe a conceder. La resolución de concesión directa podrá llevar consigo el reconocimiento y liquidación de la obligación en los supuestos a que alude el punto anterior.</p> <p>5. En relación con las subvenciones nominativas contempladas en las letras a) y b) del artículo 23.2 de esta ordenanza, cuando el Presupuesto General entre en vigor se realizarán las operaciones contables de autorización y de compromiso del gasto con imputación a la aplicación del nuevo Presupuesto que corresponda</p> <p>Sin embargo, respecto de las descritas en la letra c) del precepto, no se procederá a registrar la autorización y el compromiso del gasto hasta que se apruebe el correspondiente acto de concesión o convenio.</p> <p>6. El reconocimiento y liquidación de la obligación se tramitará mediante el documento contable de Reconocimiento de la Obligación, acompañándose al mismo la siguiente documentación, sin perjuicio de la que se debiera aportar, en</p>
---	--



<p>deialdian, hitzarmenean edo laguntza zuzenean emateko ebazpenean ezarritakoarekin bat etorrira behar den dokumentazioa aurkezteari:</p> <p>a)Laguntza emateko ebazpena edo hitzarmena, hala badagokio, organo eskudunak behar bezala sinatua.</p> <p>b)Onuraduna estatu- eta udal-ogasunekiko eta Gizarte Segurantzaren aurreko zerga-betebeharren betekizunean egunean dagoela eta, ordenantza honen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, laguntza itzultza behartzen duen ebazpen baten ondorioz zordun ez dela egiaztatzen duen agiria.</p> <p>Sei hilabeteko balio-epa amaituta baldin badago, pertsona onuradunaren beste egiaztagiriri edo aitortpen bat aurkeztu beharko da. Orobat aurkeztu beharko da beste egiaztagiriri edo aitortpen bat, egiaztatu edo aitortutako zirkunstantziak, iraungi gabe egonagatik ere, aldatu egin badira. Uste izango da dirulaguntza emateko garaian egiaztatu edo aitortutako zirkunstantziak ez direla aldatu, non eta fiskalizatzeko garaian erantsitako dokumentaziotik kontrakoa ondorioztatzen ez den.</p> <p>c)Bermea eratu dela egiaztatzen duen dokumentazioa, hala badagokio.</p> <p>d)Justifikatu ondoren ordaindu beharreko dirulaguntza bat denean,</p>	<p>su caso, de acuerdo con lo establecido en su convocatoria, convenio o resolución de concesión directa:</p> <p>a)Resolución de concesión o el convenio, en su caso, debidamente suscrito por el órgano competente.</p> <p>b)Acreditación de que la persona beneficiaria se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la hacienda estatal y municipal y frente a la Seguridad Social y no sea deudora por resolución de procedencia de reintegro en los términos establecidos en el artículo 12 de la presente ordenanza.</p> <p>Quando hubiese expirado el plazo de validez de seis meses, habrá de aportarse una nueva certificación o declaración de la persona beneficiaria. Asimismo, deberá aportarse una nueva certificación o declaración, cuando hubieran variado las circunstancias certificadas o declaradas aun cuando éstas no hubieran caducado. Se presumirá, salvo que de la documentación incluida en el expediente al momento de la fiscalización pudiera deducirse lo contrario, que las circunstancias certificadas o declaradas al momento de la concesión no han variado.</p> <p>c)La documentación acreditativa de la constitución de la garantía, en su caso.</p> <p>d)Cuando se trate de subvenciones de pago posterior a la justificación, la aprobación por el órgano</p>
--	---



<p>organo- emaileak dirulaguntzaren justifikazio osoari edo partzialari, zatikako ordainketak egiteko aukera aurreikusita badago, emandako onarpena.</p> <p>e)Baldin eta onuradunak jaso badu emandako dirulaguntzaren zati bat, kudeaketa zerbitzuaren txosten bat, egiaztatuz ez dela eman dirulaguntza itzultzerara behartzen duen edo dirulaguntza kobratzeko eskubidea galarazten duen ebazpenik, eta organo emaileak ez duela erabaki atxikitzea, kautelazko neurri gisa, ordainketa-aginduak edo onuradunari edo entitate laguntzaileari oraindik ordaindu gabe dauden kopuruak, dirulaguntza berari dagozkionak.</p> <p>7. Obligazioa baimentzeko, xedatzeko eta aitortzeko faseak metatzea egongo da, dirulaguntza ematea eta ordainketa proposatzea aldi berean gertatzen direnean, esaterako, onuradunaren egoera jakin bat gertatzen denean ematen diren dirulaguntzen kasuan, zeinek, eman baino lehenago egiaztatzen direnez, geroko justifikaziorik behar ez baitute.</p>	<p>concedente de la justificación parcial o total de la misma, según se contemple o no la posibilidad de efectuar pagos fraccionados.</p> <p>e)En el supuesto de que la persona beneficiaria hubiera percibido parte de la subvención concedida, informe del servicio gestor de que no ha sido dictada resolución declarativa de procedencia de reintegro de la subvención o de la pérdida del derecho al cobro de la misma y de que no ha sido acordada por el órgano concedente de la subvención, como medida cautelar, la retención de libramientos de pago o de las cantidades pendientes de abonar a la persona beneficiaria o entidad colaboradora, referidos a la misma subvención.</p> <p>7. Se podrá utilizar la acumulación de fases de autorización, disposición y reconocimiento de la obligación cuando la concesión y propuesta de pago sean simultáneas, como en las subvenciones que se conceden en atención a la concurrencia de una determinada situación de la persona beneficiaria, que, al ser acreditadas con anterioridad a la concesión, no requieren ulterior justificación.</p>
<p>39. artikulua.- Ordaintzeko prozedura</p> <p>1. Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren.</p>	<p>Artículo 39. Procedimiento de pago</p> <p>1. El pago de la subvención se realizará con carácter general previa presentación por la persona beneficiaria de la justificación y aprobación por el órgano competente.</p>



<p>2. Deialdian, hitzarmenean edo dirulaguntza emateko ebazpenean erabaki ahal izango ordainketa konturako abonamenduen bitartez egitea, baldin eta diruz lagundutako jarduera gauzatzearen iraupenak hala justifikatzen badu. Gisa horretako abonamenduek zatikako ordainketak egitea ekarri ahal izango dute, diruz lagundutako ekintzak egin ahala egingo direnak. Halakoetan, aurkezturiko justifikazioaren adinako kopuruak ordainduko dira.</p> <p>Oro har, berariaz kontrakoa aurreikusten ez bada, ordainketa aurreratua egingo da honoko kasu hauetan: irabazi-asmorik gabeko entitateei, edo federazioei, konfederazioei edo haien elkartei emandako gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektu edo programak finantzatzera bideratutako dirulaguntzak, eta, orobat, beste entitate onuradun batzuei emandako dirulaguntzak baldin eta diruz lagundutako jarduera behin-behinekoz finantzatzeko adinako baliabiderik ez badaukate.</p> <p>Hala eta guztiz ere, ezingo da ordainketa aurreraturik egin onuradunengan aurkitzen badira ordainketa horiek galarazten dituzten zirkunstantziak, bat etorrita DLoren 34.4 artikuluan aurreikusitakoarekin.</p> <p>3. Inola ere ezingo da dirulaguntza ordaindu onuraduna egunean ez badago Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko eta Udalarekiko zerga-betebeharren betekizunean eta Gizarte Segurantiaren aurrekoetan, edo, bestela, zordun bada dirua itzultzera behartzen duen ebazpen bat dela-eta,</p>	<p>2. La respectiva convocatoria, convenio o resolución de concesión podrá establecer la realización del pago mediante el sistema de abonos a cuenta, cuando la duración de la ejecución de la actividad subvencionada así lo justifique. Dichos abonos a cuenta podrán suponer la realización de pagos fraccionados que responderán al ritmo previsto de ejecución de las actividades subvencionadas, abonándose por una cuantía equivalente a la justificación presentada.</p> <p>Con carácter general, salvo previsión expresa en contrario, se realizará el pago anticipado en los supuestos de subvenciones destinadas a financiar proyectos o programas de acción social y cooperación internacional que se concedan a entidades sin fines lucrativos, o a federaciones, confederaciones o agrupaciones de las mismas, así como subvenciones a otras entidades beneficiarias siempre que no dispongan de recursos suficientes, y así lo acrediten suficientemente, para financiar transitoriamente la ejecución de la actividad subvencionada.</p> <p>No obstante, no podrán realizarse pagos anticipados cuando concurren en la persona beneficiaria las circunstancias que los impiden de conformidad con las previsiones del artículo 34.4 de la LGS.</p> <p>3. En ningún caso podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la persona beneficiaria no se halle al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la Agencia Estatal de la Administración Tributaria y el Ayuntamiento y frente a la Seguridad Social, o bien sea deudor por resolución de procedencia de reintegro, en los</p>
--	--



<p>Ordenantza honen 12. eta 40. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.</p> <p>4. dirulaguntza baten onuradunak hura kobratzeko eskubidea hirugarrenago bati lagaz gero, lagapen-hartzaileari egin beharreko ordainketak artikulua honetan xedatutakoari jarraituko dio.</p> <p>5. Ordainketak dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.</p>	<p>términos previstos en los artículos 12 y 40 de esta Ordenanza</p> <p>4. En los casos en que la persona beneficiaria de una subvención cediese el derecho de cobro a un tercero, el pago a la persona cesionaria quedará sometido a lo establecido en este artículo.</p> <p>5. Los pagos serán comunicados a la BDNS antes de que finalice el mes natural siguiente al de su realización.</p>
<p>VI. KAPITULUA. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA</p>	<p>CAPÍTULO VI. REINTEGRO DE SUBVENCIONES</p>
<p>40. artikulua. <i>Jasotako kopuruak itzultzeko arrazoiak</i></p> <p>1. Dirulaguntza ematen duen organoak erabakiko du jasotako diru-kopuru guztiak edo haien zati bat itzultzeko espedienteari hasiera ematea, eta behar den berandutze-interesa eskatzea, honako kasu hauetan:</p> <p>A. Dirulaguntza kobratzeko eskubidea galarazten duten kasuetan (ordenantza honen 37. artikuluan daude zerrendatuta), honako arau hauek aplikatuta:</p> <p>1.a. Organo emaileak ebazten badu dirulaguntza kobratzeko eskubide osoa galtzen dela, onuradunak edo entitate laguntzaileak kobratu duen gutzia itzultzeko prozedura instruitzea erabakiko da.</p> <p>2.a. Organo emaileak adierazten badu dirulaguntza kobratzeko eskubidearen zati bat galtzen dela -bat etorrita aipatutako 36. artikuluan 2. atalean aurreikusitakoarekin-, zehaztuko du,</p>	<p>Artículo 40. Causas del reintegro de las cantidades percibidas</p> <p>1. El órgano concedente de la subvención acordará la iniciación de expediente para el reintegro total o parcial de las cantidades percibidas, y la exigencia del interés de demora correspondiente, en los supuestos siguientes:</p> <p>A. En los supuestos de declaración de la pérdida del derecho al cobro de la subvención, que enumera el artículo 37 de esta ordenanza, con aplicación de las reglas siguientes:</p> <p>1ª. Cuando el órgano concedente declare la pérdida total del derecho al cobro de la subvención, se acordará la instrucción del procedimiento para el reintegro de la totalidad de lo percibido por la persona beneficiaria o entidad colaboradora.</p> <p>2ª. Cuando el órgano concedente declare la pérdida parcial del derecho al cobro, según lo previsto en el apartado 2 del citado artículo 36, determinará además el importe que resulte a reintegrar por la</p>



<p>gainera, zein den onuradunak edo entitate laguntzaileak itzuli beharreko zenbatekoa, betiere jasotako dirulaguntza onartutako eskubidea baino gehiago bada, eta aldi berean erabakiko du Administrazioari bien arteko diferentzia itzultzeko prozedura instruitzea.</p> <p>B. Udal kontuhartzaileak agerian uzten badu, berak ematen duen finantza-kontrolari buruzko txostenean, ordenantza honen 36. artikuluan zehaztutako kasuetakoren bat gertatzen dela. Txostenak honi buruzko iritzia eman beharko du: ea ordaindutako kopuru osoa itzuli behar den edo, hala ez bada, zein den itzuli beharreko kopuru zehatza.</p> <p>C. Era berean, finantza-kontrolaren garapenean udal kontuhartzaileak antzematen baditu jasotako kopuruak itzultzea eragin dezaketen zirkunstantziak, ordenantza honen 36. artikuluan aurreikusitakoez bestelakoak, zirkunstantzia horiek dirulaguntza eman duen organoari jakinaraziko zaizkio, honek behar diren neurriak har ditzan.</p> <p>2. Emateko ebazpena baliogabetzat jotzen denetan ere, dela ebazpen administratiboaz dela epai judizialaz, itzultzeko espedienteari hasiera ematea erabakiko da.</p> <p>Behin ebazpenak irmotasuna hartuz gero, onuradunak edo entitate laguntzaileak jasotako guztia itzultzeko prozedura tramitatuko da.</p>	<p>persona beneficiaria o entidad colaboradora siempre que la subvención ya percibida sea superior a la cuantía del derecho reconocido, acordando al propio tiempo la instrucción del procedimiento para el reintegro de la diferencia a favor de la Administración.</p> <p>B. Cuando el Interventor municipal en el informe de control financiero que emita, ponga de manifiesto la concurrencia de alguno de los supuestos detallados en el artículo 36 de esta ordenanza. El informe deberá pronunciarse acerca de si procede el reintegro total de lo pagado o, de no ser así, acerca de la cuantía concreta a reintegrar.</p> <p>C. De igual modo, cuando en el desarrollo del control financiero el Interventor municipal aprecie la existencia de circunstancias que pudieran dar origen a la devolución de las cantidades percibidas por causas distintas a las previstas en el artículo 36 de esta ordenanza, se pondrán los hechos en conocimiento del órgano concedente de la subvención, que adoptará las medidas que procedan.</p> <p>2. También se acordará la iniciación de expediente de reintegro en los casos en que la resolución de concesión sea declarada nula, tanto si lo es por resolución administrativa como por sentencia judicial</p> <p>Una vez la resolución haya adquirido firmeza, se tramitará el procedimiento para el reintegro de la totalidad de lo percibido por la beneficiaria o entidad colaboradora.</p>
--	---



<p>41. artikulua. Itzulketaren izaera eta berandutze-interesak eskatzea</p> <p>1. Itzuli beharreko diru-kopuruak izaera publikoko eskubidetzat hartuko dira. Kopuru horiek kobratzeko, udal ogasunak izango ditu Estatuko ogasunarentzat legez onartutako eskumenak eta jardungo du dagozkion administrazio-prozeduren arabera.</p> <p>2. Aurreko artikulua 1. atalean araututako kasuetan, jasotako diru-kopuruaren itzultzeaz gain eskatuko da berandutze-interesa, honela kalkulatuta: dirulaguntza ordaindu denetik itzulketa egin behar dela ebazten den eguna arte.</p> <p>3. Diruaren legezko interesari ehuneko 25eko gehikuntza ezarri ondoren ateratako zenbatekoa izango dira dirulaguntzei buruzko gaitan ezar daitekeen berandutze-interesa, salbu eta Estatuaren Aurrekontu Orokorretan besterik xedatzen dela.</p>	<p>Artículo 41. Naturaleza del reintegro y exigencia de intereses de demora</p> <p>1. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de derechos de naturaleza pública. Para su cobranza, la hacienda municipal tendrá las prerrogativas establecidas legalmente para la hacienda del Estado y actuará conforme a los procedimientos administrativos correspondientes.</p> <p>2. El reintegro de las cantidades percibidas en los supuestos regulados en el apartado 1 del artículo anterior, llevará aparejada la exigencia del interés de demora, calculado desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro.</p> <p>3. El interés de demora aplicable en materia de subvenciones será el interés legal del dinero vigente en cada ejercicio del periodo en que resulte exigible, incrementado en un 25% salvo que la Ley de Presupuestos Generales del Estado establezca otro diferente.</p>
<p>42. artikulua. Itzulketa egiteko prozedura</p> <p>1. dirulaguntzak itzultzeko prozedura organo eskudunaren erabaki baten bidez hasiko da 40. artikuluan zehaztutako kasuren batean gertatzen denean, eta DLOa izango du aginduzko, edo, bestela, prozedura administratiboei buruzko xedapen orokorrak.</p> <p>2. Behin itzultzeko prozedurari hasiera ematea erabakiz gero, organo emaileak erabaki dezake, kautelazko neurri gisa, onuradunari edo entitate laguntzaileari</p>	<p>Artículo 42. Procedimiento de reintegro</p> <p>1. El procedimiento de reintegro de subvenciones se iniciará por acuerdo del órgano concedente cuando concurra alguno de los supuestos detallados en el artículo 40 y se regirá por la LGS y, en su defecto, por las disposiciones generales sobre procedimientos administrativos.</p> <p>2. Una vez acordado el inicio del procedimiento de reintegro, como medida cautelar, el órgano concedente puede acordar la suspensión de los libramientos</p>



<p>eman gabe dauden kopuruen ordainketa-aginduak etetea, baina, inola ere ez da gaindituko itzultzeko espedientea hasteko proposamenak edo ebazpenak zehaztutako kopurua, une hartara arte sortutako berandutze-interesekin.</p> <p>Nolanahi ere, ordainketa-aginduak etengo dira baldin eta arrazoizko zantzuak badaude ordainketa eskuratzeko ezintasuna aurreikusteko, edo ordainketa zapuztu edo modu larrian zaildu badaiteke eta, batik bat, onuradunak bere ondasunak ezkutatu, kargatu edo erabiltzen baditu.</p> <p>Ordainketak atxikitzeko, aurreko kasuetako edozeinetan, honako araubide juridiko honi jarraitu behar zaio:</p> <p>a)Lortu nahi den helburuaren proportziokoa izan behar du, eta ez da inola ere egin behar konpontzen zailak edo ezinezkoak diren ondorioak sortzen baditu.</p> <p>b)Etendurari eutsi behar zaio harik eta itzulketari buruzko espedienteari bukaera ematen dion ebazpena eman arte, eta ezin izango du gainditu bere tramitaziorako zehazten den gehienezko epea, luzapenak barne.</p> <p>c)Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, etendura kendu egin behar da baldin eta hura sortu zuten arrazoiak desagertu badira edo onuradunak proposatzen badu kautelazko neurri horren ordezt nahikoa dela iritzitako berme bat eratzea.</p>	<p>de pago de las cantidades pendientes de abonar a la beneficiaria o entidad colaboradora, sin superar, en ningún caso, el importe que fijen la propuesta o resolución de inicio del expediente de reintegro, con los intereses de demora devengados hasta aquel momento.</p> <p>En todo caso, procederá la suspensión si existen indicios racionales que permitan prever la imposibilidad de obtener el resarcimiento, o si éste puede verse frustrado o gravemente dificultado y, en especial, si el perceptor hace actos de ocultación, gravamen o disposición de sus bienes.</p> <p>La retención de pagos estará sujeta, en cualquiera de los supuestos anteriores, al siguiente régimen jurídico:</p> <p>a)Debe ser proporcional a la finalidad que se pretende conseguir, y, en ningún caso, debe adoptarse si puede producir efectos de difícil o imposible reparación.</p> <p>b)Debe mantenerse hasta que se dicte la resolución que pone fin al expediente de reintegro, y no puede superar el período máximo que se fije para su tramitación, incluidas prórrogas.</p> <p>c)No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, debe levantarse cuando desaparezcan las circunstancias que la originaron o cuando la persona interesada proponga la sustitución de esta medida cautelar por la constitución de una garantía que se considere suficiente.</p>
--	--



<p>3. Prozeduraren tramitazioan beti egon behar du bermatuta interesdunak entzunaldia izateko eskubidea.</p> <p>4. dirulaguntza ematen duen organoa izango da dirulaguntza itzultzeko prozedura ebazteko eskumena duena. Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea izango da hamabi hilabetekoa, itzultzeko prozedurari hasiera emateko akordioa hartzen denetik kontatuta. Ebazteko epea igarotzen bada berriazko ebazpenik jakinarazi gabe, prozedura iraungi egingo da; hala ere, jarduketek bukatu arte jarrai dezakete eta aipatutako epea bukatu arte egindako jarduketengatiko preskripzioa ez da etentzat emango.</p> <p>5. Dirulaguntza itzultzeko prozedurari ez zaio hasierarik emango baldin eta itzuli beharreko zenbatekoa, berandutze-interesak barne, hamabi eurokoa baino txikiagoa bada. Era berean, dirulaguntza itzultzeko prozedura hasita dagoelarik onuradunak aurkeztutako alegazioak onesten badira, halako moduz non azkenean itzuli beharreko zenbatekoa lehen aipatutako kopurua baino txikiagoa den, prozeduraren ebazpenean adieraziko da ezen kopuru horrengatik ezin zaiola onuradunari eskatu.</p>	<p>3. En la tramitación del procedimiento se garantizará en todo caso el derecho de la persona interesada a la audiencia.</p> <p>4. El órgano concedente de la subvención será el competente para la resolución del procedimiento de reintegro. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de doce meses desde la fecha del acuerdo de iniciación. Si transcurre el plazo para resolver sin que se haya notificado resolución expresa, se producirá la caducidad del procedimiento, sin perjuicio de continuar las actuaciones hasta su terminación y sin que se considere interrumpida la prescripción por las actuaciones realizadas hasta la finalización del citado plazo.</p> <p>5. No se iniciará el procedimiento de reintegro cuando el importe a reintegrar, incluidos los intereses de demora, sea inferior a doce euros. Asimismo, si iniciado el procedimiento de reintegro se estimaran las alegaciones presentadas por la persona interesada, de tal manera que el importe final a reintegrar fuera inferior a dicha cifra, la resolución del procedimiento indicará que no procede su exigencia a la beneficiaria por razón de su importe.</p>
<p>VII. KAPITULUA. UDALAREN DIRULAGUNTZEN KONTROL FINANTZARIOA</p>	<p>CAPÍTULO VII. CONTROL FINANCIERO DE LAS SUBVENCIONES MUNICIPALES</p>
<p>43. artikulua. <i>Udalaren dirulaguntzen kontrol finantzarioa</i></p> <p>1. Udalaren dirulaguntzen kontrol finantzarioak aginduzko izango du, oro</p>	<p>Artículo 43. Control financiero de las subvenciones municipales</p> <p>1. El control financiero de las subvenciones municipales se regirá, con</p>



<p>har, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren III. Tituluan eta lege hori garatzeko Araudian xedatutakoa.</p> <p>2. Udalaren dirulaguntzen kontrol finantzarioa egiteko eskumena Udal kontuhartzailearena da, eta horrek auditoria edo beste kontrol-teknika batzuen bidez egingo du kontrol hori.</p> <p>3. Bat etorririk DLOren Laugarren Xedapen Gehigarriaren 3. puntuan aurreikusitakoarekin, Udal kontuhartzaileak auditoria-enpresa pribatu batzuen laguntza eskatu lezake, baina, nolana ere, berarentzat gordeko ditu administrazio-ahalak erabiltzearen ondorio diren jarduketak egitea.</p>	<p>carácter general, por lo dispuesto en el Título III de la Ley General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo.</p> <p>2. La competencia para efectuar el control financiero de las subvenciones municipales corresponde al Interventor Municipal, que la ejercerá mediante auditorías u otras técnicas de control.</p> <p>3. De conformidad con lo previsto en la Disposición Adicional Cuarta, punto 3, de la LGS, el Interventor municipal podrá recabar la colaboración de empresas privadas de auditoría, quedando en todo caso reservadas al mismo las actuaciones que supongan el ejercicio de potestades administrativas.</p>
<p>VIII. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEI BURUZKO ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK</p>	<p>CAPÍTULO VIII. INFRACCIONES Y SANCIONES ADMINISTRATIVAS EN MATERIA DE SUBVENCIONES</p>
<p>44. artikulua. dirulaguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboak</p> <p>1. dirulaguntzei buruzko arau-hauste eta zehapen administratiboen araubide juridikoa da dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluan xedatutakoa.</p> <p>2. Zehatzeko ahala indarrean dagoen delegazio eta deskontzentrazioen araubideak emanda duten organoei dagokie zehapenak ezartzeko eskumena.</p>	<p>Artículo 44. Infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones</p> <p>1. El régimen jurídico de las infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones es el establecido en el Título IV dela Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.</p> <p>2. La competencia para imponer sanciones corresponde a los órganos que tengan atribuida la potestad sancionadora de acuerdo con el régimen delegaciones y desconcentraciones vigente.</p>



XEDAPEN GEHIGARRIAK	DISPOSICIONES ADICIONALES
<p>Lehena.</p> <p><i>Garapenerako lankidetzak-programak eta -proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen araubide berezia.</i></p> <p>Garapenerako lankidetzak-programak eta -proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen berezitasunak arautzeko, laguntza horien oinarri propioak onartu behar dira. Oinarri propio horietan xedatuko da zein den aplikatu beharreko araubidea, hala dirulaguntzen ondoriozko harreman juridikoari lotutako pertsonen nola jarraipen, kontrol eta justifikazioaren arloan, eta ordenantza hau izango da oinarri horien ordezkari eta osagarri gisa aplikatzeko.</p>	<p>Primera.</p> <p><i>Régimen específico de las subvenciones para la ejecución de programas y proyectos de cooperación para el desarrollo</i></p> <p>Para la regulación de las singularidades de las subvenciones, para la ejecución de programas y proyectos de cooperación para el desarrollo, se aprobarán sus propias bases en las que se establecerá el régimen aplicable, tanto a las personas sujetas a la relación jurídica subvencional como en el ámbito del seguimiento, control y justificación de los proyectos subvencionados, siendo la presente ordenanza de aplicación supletoria de las mismas.</p>
<p>Bigarrena. Publizitate eta konkurrentziaren mende dauden hezkuntza, kultura, zientzia edo beste edozein motatako sariak.</p>	<p>Segunda. Premios educativos, culturales, científicos o de cualquier otra naturaleza sujetos a publicidad y concurrencia</p>
<p>1. Pertsona edo entitate onuradunak aurretik eskatutako sariak emateko onartzen diren deialdiek xedapen gehigarri honetan xedatutakoa izango dute aginduzko. Bestela, ordenantza honetan, DLOn eta beraren Araudian xedatutakoa izango dute aginduzko, salbu eta dirulaguntza hauen izaera berezia dela-eta hori aplikatu ezin zaien alderdietan.</p>	<p>1. Las convocatorias que se aprueben para el otorgamiento de premios previa solicitud de la beneficiaria se registrarán por lo dispuesto en la presente disposición adicional. En su defecto, se regularán por lo dispuesto en la presente ordenanza, la LGS y su Reglamento, salvo en aquellos aspectos en los que por la especial naturaleza de estas subvenciones no resulte aplicable.</p>
<p>2. Sarien deialdiak argitaratu behar dira, ordenantza honen 19. artikuluan xedatutako datu eta agiriekin batera, dirulaguntzen Datu Base Nazionalen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, bai eta udalaren webgunean ere; argitara litezke, halaber, deialdia egiteko eskumena duen organoak xedatutako modua eta bitartekoak erabilita.</p>	<p>2. Las convocatorias de premios deberán publicarse en la BDNS y en el Boletín Oficial de la Provincia, así como en la página web municipal, junto con los datos y documentos que establece el artículo 19 de esta ordenanza, pudiéndose publicar adicionalmente en la forma y por los medios que se establezcan por el órgano competente para su convocatoria.</p>



<p>3. Nahiz eta deialdi bakoitzean berariaz ezarritako parte hartzeko baldintzak bete, pertsona fisikoek, juridikoek edo entitateek ezingo dute deialdietan parte hartu baldin eta DLOren 13. artikuluan xedatutako dirulaguntzak jasotzea debekatzen duten kasuetako batean sartuta badaude. Deialdietan berariaz jaso beharko da parte-hartzaileek aitorpen bat aurkeztu beharra daukatela, egiaztatuz ez daudela sartuta aipatutako DLOren 13. artikuluko horretan aurreikusitako debekuetan.</p> <p>4. Parte-hartzaileek egiaztatu beharko dute, ordenantza honen 11. artikuluan xedatuta dagoen eran, egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko betebeharrak ere. dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko betebeharrak egunean dituztela egiaztatuko da erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.</p>	<p>3. No podrán participar en las respectivas convocatorias las personas físicas, jurídicas o entidades que cumpliendo los requisitos específicos de participación establecidos en cada una de ellas, estén incursas en alguna de las causas de prohibición para percibir subvenciones establecidas en el artículo 13 de la LGS. Las convocatorias deberán recoger expresamente la obligación de las personas participantes de presentar una declaración de no encontrarse incursas en ninguna de las prohibiciones previstas en el citado artículo 13 de la LGS.</p> <p>4. Las personas participantes deberán acreditar que se encuentran al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y del cumplimiento de las obligaciones por reintegro de subvenciones en la forma establecida en el artículo 11 de la presente ordenanza. La acreditación del cumplimiento de obligaciones por reintegro de subvenciones se realizará mediante una declaración responsable</p>
<p>Bigarrena.</p>	<p>Segunda.</p>
<p>Tolosako Udaleko Alkatetzari ahalmena ematen zaio Ordenantza hau aldatzeko, baldin eta nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondoriozkoak badira, eta eskakizunak aldatu beharra edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitu beharra badakarte. Aldaketetan beren-beregi adieraziko da hori. Aldaketa horien berri, berehala emango zaio udalbatzari, berrets ditzan.</p>	<p>Se faculta a la Alcaldía del Ayuntamiento de Tolosa para modificar la presente Ordenanza, siempre que dicha modificación sea consecuencia de modificaciones legales de obligada aplicación que impliquen modificación de requisitos o reajuste automático de cuantías o porcentajes. En las modificaciones se indicará expresamente esta circunstancia. De dichas modificaciones se dará cuenta inmediata al Pleno para su ratificación.</p>



<p>XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. Prozeduren araubide iragankorra</p> <p>1. Ordenantza hau indarrean jartzerako hasita zeuden dirulaguntzak emateko prozedurei aplikatuko zaie prozedura horiek hasi ziren unean indarrean zegoen arautegia. Ondorio horietarako, prozedura hasita dagoela iritziko da, norgehiagokako araubidearen bidez ematen diren dirulaguntzentzat, deialdia argitaratzen den unetik; zuzenean ematen direnentzat, berriz, laguntza emateko erabakia hartu edo hitzarmena sinatu den unetik.</p> <p>2. Kontrol finantzario-, itzulketa- eta berrikuspen-prozedurak indarrean sartzen diren unetik aurrera izango dira aplikagarri.</p>	<p>DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA. Régimen transitorio de los procedimientos</p> <p>1. A los procedimientos de concesión de subvenciones ya iniciados a la entrada en vigor de la presente ordenanza les será de aplicación la normativa vigente en el momento de su inicio. A estos efectos el procedimiento se considerará iniciado para las subvenciones de concurrencia competitiva desde el momento de la publicación de la convocatoria y para las de concesión directa, desde el momento en que se adopte la resolución de concesión o se suscriba el convenio.</p> <p>2. Los procedimientos de control financiero, reintegro y revisión de actos resultarán de aplicación desde su entrada en vigor.</p>
<p>XEDAPEN INDARGABETZAILEA Honako ordenantza hau indargabetuta geratu da:</p> <p>1.Tolosako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.</p>	<p>DISPOSICIÓN DEROGATORIA Quedan derogada la siguiente ordenanza:</p> <p>1.Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.</p>
<p>AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea</p> <p>Tolosako Udalaren dirulaguntzen ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren.</p> <p>Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira,</p>	<p>DISPOSICIÓN FINAL. Entrada en vigor</p> <p>La presente ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa entrará en vigor transcurrido el plazo de 15 días hábiles desde la publicación de su aprobación definitiva en el Boletín Oficial de la Provincia de Gipuzkoa.</p> <p>Conforme a lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 2/1985, de 2 de abril,</p>



<p>hasierako onarpena jaso duen dirulaguntzen Ordenantza Orokor hau jendaurrean jartzen da ikusgai, 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean, epe horretan interesdunek aurkeztu ahal izan ditzaten egoki iruditzen zaizkien erreklamazio eta iradokizun guztiak.</p>	<p>Reguladora de las Bases de Régimen Local se somete a información pública la Ordenanza General de Subvenciones, inicialmente aprobada, durante el plazo de 30 días en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el espacio web municipal, al objeto de que los interesados puedan presentar en dicho plazo cuantas reclamaciones y sugerencias consideren oportunas.</p>
---	--